




**Irizar PB
autobus
berria**

**Gerriko
beka
aurkeztu
dute**

**Errugbilari
ukraniarrak
ordizian**

Elkartasunezko irribarrea



**Mozorro denda
ORDIZIAN**

ZATOK INAUTERIAK OSPATZERA!


**Majori Plaza, 12
943 888 232**



ORDIZIA
OSASUN ZENTROA

ZURE ONERAKO

Goizeko 8,30etatik arratsaldeko 8,30ak arte



ORDIZIA
OSASUN ZENTROA

Goierrri kalea

Tel.: 943 16 40 48 Faxa: 943 16 47 03
ORDIZIA

AENOR
R
Empresa
Registrada
ERI452/2/00



IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m².
- Kalitate goreneko materialak.
Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001. urteko 4. hiruhilekoan

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Non zer

8 AHOLKUA:

Aparkalekuak

9 KATE MOTZEAN:

Oskarbi

Gurrutxaga

10-11:

Takolo, Pirritx eta

Porrotx Nikaraguan

12:

Gerriko Ikerketa-beka

13-22 KRONIKAK

OLABERRIA 13: Kultur

astea. **IDIAZABAL 14:**

Gasa etxeetan. **MUTILOA**

14: Eskulan ikastaroa.

ZEGAMA 15: Inauteriak.

BEASAIN 16: Emakumezkoen

eguna. **ZALDIBIA 17:** Zape

festa. **ORMAIZTEGI 18:**

Goierriko turismo gidaren

aurkezpena. **ZERAIN 18:**

Endika Alustiza

memoriala. **ORDIZIA**

19: hegats

igeriketako nazioarteko

proba. **LAZKAO 20:** Josu

Sarriegiren debuta.

LEGORRETA 20: Euskal

dantza ikastaroa. **ATAUN 21:**

5 arkumeren jaiotza. **SEGURA**

22: Herri ekolaren kultur

astea.

23: KIROLA:

errugbilari

atzerritarrak Ordizian.

24: KULTURA:

Baga-

Bigaren agurra.

29: ZAHARRAK BERRI:

70 urte ezkondu.

30: FOTO ZAHARRA:

Segurarrak 1960an.



Ormaiztegiko Irizar kooperatiba:

Irizar PB autobus berria

Otsailaren 16an, Donostian, autobus eredu berria aurkeztu zuen Ormaiztegiko Irizar autobus kooperatibak. PB, Produktu Berria, jarri eman dio izena autobusari. 3.000 milioi pezetako inbertsioa egingo du. Proiektu berriarekin Espainiako autobus merkatuaren % 50 bereganatu nahi du eta datozen bi urtetan gainerako Europako merkatuetara zabaltu nahi da eskaintza berria. "Espainian matrikulatzen diren bi autobusetatik bat Irizarrena izatea nahi dugu", esan zuen Koldo Saratxaga kudeaketa zuzendariak aurkezpenean.

Produktzioaren %60 esportatu egingo du, 42 herrialdetara. 1.300 autobus egingo ditu Irizarrek eta aurrerantzean PB ereduaren sei ibilgailu egiteko asmoa dauka.

Hiru urteko lanaren emaitza da Irizar PB. Mila lagunetik gora hartu dute parte proiektuan.

Autobus berriaren ezaugarri nagusiak, segurtasuna, erosotasuna, errentagarritasuna eta fidagarritasuna dira. Autobusaren segurtasun handiagoa egituran datza. Autobusa irauliz gero, Century autobusak baino % 30 erresistentzia handiago du. 3,50 metroko altuera du autobusak eta zabaleira, 12-15 artekoa.

26 eta 38 milioi pezeta artekoa izango da Irizar PBren prezioa.

Indiara

Aste honetan, Irizar ere albiste izan da Indian autobus lantegia eraikitzeko akordioa lortu baitu hango bi enprekin. 'Joint-venture' (enpresa mistoa) izango da eta Indiako hiriburutik gertu, kokatuko da. Irizar TVS Limited izena izango du. 30 milioi pezetako kapital soziala izango du. Irizarrek, Leylanda eta Sundaram enpresek, zati berdinetan jarriko dute dirua.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19

E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako

kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne

Albizu, Laida Oiarbide, Inko Mujika, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Aitziber Murua, Agurtzane Bikuña,


Mari Flor Mendizabal, Iñaki Ugalde, EKA

Azaleko argazkia: Takolo, Pirritx eta Porrotx.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Franko kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**

Txemi Arteaga gose greban

Uztailaz geroztik txapeoan dago Valentziako kartzelan Txemi Arteaga Beasaingo presoak, kartzela berean dauden baina modulo ezberdinetan dauden bi euskal presoak, modulo berean jarri ditzaten eskatzeko. Orain, gose grebari ekin dio beasaindarrak.

6 gazteren aurkako epaiketa

Goierriko 6 gazterentzat 128 urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak, ustez hainbat kale erasotan parte hartu dutelakoan. Aste guztian zehar, hainbat ekitaldi eta atxikimendu bilketa ari dira egiten Goierriko zenbait talde. Gaur, otsailak 23, irakaskuntza arloan geldialdia deitu da eta 12etan manifestazioa aterako da Ordiziako plazatik. Igandean, 19:30ean, beste manifestazio bat egingo da Ordizian.

Presoen eskubideen aldeko manifestazioa

Gaur Beasainen egingo da presoen eskubideen aldeko manifestazioa, 20:30ean, Zubimuzutik aterata.

Euskararen aldeko mobilizazio astea Goierriin

Otsailaren 26tik martxoaren 2ra bitartean, 'Hizkuntza zapalketa borrokatu' lelopean, mobilizazio astea izango da Goierriin, Euskal Herrian Euskaraz taldeak deituta. Euskararen ofizialtasuna eskatzen du EHEk. Jarraian duzue antolatutako ekitaldien berri.

● Otsailak 28, asteazkena: 'Ofizialtasuna orain' hitzaldia, Ordiziako Barrena Kultur etxean, 19:30ean.

● Martxoak 1, osteguna: Ordiziako anbulategi aurrean, kontzentrazioa, 19:30ean, 'Osasungintza euskaldundu' lelopean.

● Martxoak 2, ostirala: Borroka eguna deitu du EHEk. Bi manifestazio izango dira: 12:00etan, Ordizian, plazatik abiatuta; 20:00etan, Beasainen.

'Goierri, astebete eta zerbait gehiago' gidaren aurkezpena

Martxoaren 8an, goizeko 11etan, Ormaiztegiko Zumalakarregi museoan aurkeztuko du Goiturrek Goierriko gida turistiko praktikoa berria. Goiturren logotipo berria ere aurkeztuko da. Prentsaurrean, Alejandra Iturrioz Ordiziako alkatea eta Goiturreko lehendakaria; Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko Ordezkariek; eta Goierri hainbeste maite duen Bulgariako enbaxadore andrea izango dira. Hurrengo alean izango dugu xehetasun gehiago.

Korrika

12. Korrika prestatzen ari dira AEK-koak. Goierriko herri ezberdinetan batzordeak antolatu dira Goierri dagokion Korrika antolatzeko. Aurrerago izango dugu ekitaldien berri zehatza. Dena den, aurreratu genezake, 12. Korrika, apirilaren 2an iritsiko dela Goierri, goizean. Ordiziatik esaterako, 9:43ean pasatzea aurreikusten da eta Beasaindik, 10:25ean.



Rufino Iraola

'Abaraska' izenburuko artikulu-bilduma kaleratu du Rufino Iraola zaldibitarrek, Hiria argitaletxearen eskutik. Artikulu motxak dira, batzuk aurrez zenbait aldizkaritan publikatuak, beste batzuk, guztiz ezezagunak.

Jesus Mendizabal, irulea

Zaldibitarrek Gipuzkoako Merkatal Ganbarak artisauei ematen dien saria jaso zuen otsailaren 15ean Donostian. Irulea da Jesus Mendizabal, 75 urte ditu eta artzaina izan du ogibide. Mendian ikasi omen zuen irule lana.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Barandiaran
ZERAMIKA



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Euskal futbol taldeen aldeko Goierriko lagunartea

Ideia oraindik ere erabat finkatu gabe badago ere Euskal futbolaren inguruko laguntalde edo peña bat sortze-ko asmotan ari dira Ordizia aldean. "Oraindik ez dakigu zehazki zer izango den, hori inguratzen den jendearen eta hauen gogo eta jarreraren arabera izango da", diote bultzatzaileek. Ideia Ordizian sortu bada ere Goierri guztira ari dira zabaltzen. Batez ere Erreal eta Osasunako zaleak daude, Athletikeko batzuk ere badira.

Futbolaren inguruko talde bat izango da baina ez dute horretara bakarrik mugatu nahi. "Futbola ez da errealitatearen ihesbide bat izan behar, ezta ere inguruko taldeetako zaleei jipoiak eman edo iraintzeko aitzakia. Euskal Herriko taldeen artean umore baten barruan eta adarjotze baten barruan eraman nahi dugu norgehiagoka. Ez azken aldian iristen ari den puntuetara iritsi. Guzti horren atzetik helburu politikoa dago. Gizartearen barruan zatiketa ematen du. Gure asmoa xumeki horrekin bukatu nahi izatea da. Bestetik, futbolera-

ko edo kirolen baterako zale-
tasuna izateak ez du esan nahi
Euskal Herriak duen arazoe-
kiko konpromezurik izan be-
har ez denik", azaldu digute.


Batez ere derbien eta Eus-
kal Selekzioen parduuen in-
guruan lan egin nahi dute, be-
ti ere lurraldetasunaren ikus-
pegitik. "Hasera nahiko xu-
mea da, jende bat elkartu,
partiduak telebistan ikusi Or-
legi tabernan, partiduak ikus-
tera joan, porra bat egin..."
Aurten ideiak argitzen joan
eta ekintza xumeak antolatu
nahi dituzte eta aurrera jarrai-
tzen badu aurkezpen ofiziala
egin eta sendotzeko asmoa
dute. Porra aste honetan jarri
dute martxan, bi euskal talde-
en emaitzak (golekin) eta bes-
te bien kiniela (1-X-2) asmatu
beharko da.

Laster lehiaketaketa anto-
latuko dute, taldearen izena,
lema eta logotipoa aukeratze-
ko. Barrenan bilera bat egite-
ko asmoa dute. Orain ahal den
jende gehienak izena ematea
dute helburu. Izena emateko
Ordiziako Orlegi tabernara jo-
an behar da, bertan biltzen
baitira taldekoak.

Labur-labur

Josu Sarriegiren debuta

Lazkaotarrak Alaves taldearekin debutatu zuen otsailaren 18an, Osasunaren aurkako partidari. Datu gehiago Lazkaoko kronikan.



Martin Alustiza finalaurdenetan

Segurako pilotaria, es-
kuz binakako txapelketa-
ko finalurrekoetan sartu
da, Ruben Beloki bikote-
kidearekin. Ligaska jo-
katu beharko dute orain,
finalerako txartela lort-
zeko lehian. Lehenengo
partida, otsailaren 17an
jokatu zuten, Unanue-
Zearraren aurka, 22-8ko
garaipena lortuz.


Iñaki Azurmendi: Urrezko aizkoratik kanpo

Arriarango aizkolariak le-
hen aldiz parte hartu du
banakako Urrezko aizko-
ran. Lehenengo kanpora-
ketan, Txapartegiren aur-
kakoa, galdu egin zuen.




ETXE ADOSATUAK ATAUN San Martinen

Beheko solairua



28.000.000
pezetatik hasita



Lehenengo solairua

- Eraikitako 250 m² inguru
- Sotoa + 2 solairu + atikoa
- Egongela, 3 logela, sukaldea jantzita, 2 bainugela eta komuna

ETXEAK TERRAZA ETA LORATEGIAREKIN
1. kalitateko materiale eta akaberak

Promotorea: EDERKI 2002 S.L.

URUMEA AGENTZIA INMOBILIARIOA - 943 47 40 44 Prim kalea, 59 - 1. erdia DONOSTIA

iBTi-ONDO AROTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gastainondoak

multisac
SYSTEM

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Euskaltzaleok kalera!

Azken urte honetan euskarak jasaten ari den etengabeko erasoak eta batez ere UPN-ren gobernuak 'Vascuence'-ren legearen inguruan hartutako erabakiak, haserrea sortu du Euskal herritarren artean, onartezina eta ulertezina iruditzen zaigulako garai hauetan horrelako jarrera zanpatzaileak eta lotsagarriak edukitzea gure hizkuntzarekiko.

Baina erasoak ez dira gu-ne edota egoera batean bakarrik ematen, euskaldunon hizkuntz eskubideen zapalketa, uneoro eta Euskal Herri guztian jasaten ari gara; Ordiziako anbulategian, Gernikako epaitegian, Zeberioiko ikastetxean, Baionako mediku-etxean, Gasteizko epaitegietan...

Egoera hauen aurrean, bada garaia euskaldunok gure hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko eta Ofizialtasunaren

beharra kaleratzeko. Beraz, bat egin dezagun eta mobiliza gaitzen, azken finean ezin onar baidezakegu euskararik gabeko Euskal Herri bat.

Lierni Iztueta
(Euskal Herrian Euskaraz)

Lierni askatu!

Lierni Armendariz gure ikaslagunaren atxiloketa dela eta hainbat gogoeta:

1.- Lierniren askatasuna eskatzen dugu, hein berean bere lagun, familia eta kide guztiei elkartasuna helerazten diegu.

2.- Lierniren atxiloketak beste behin herri honetan konpondu gabeko gatazka baten adierazgarri izan nahi du.

3.- Liernik atxiloketa unetik Sotoko presondegian sartu arte salatu dituen tortura eta tratatu txarrak salatzen ditugu eta baita egun horietan torturatua izatea ahalbideratu duen legedia antiterrorista, zeinak atxilotua erabateko indefensioan uzten duen (asistentzia juridikorik ez...).

4.- Unibertsitatea mutu dago kasu honetan, bere ikasle batek torturak eta tratatu txarrak salatzea eta herri honek bizi duen gatazkak irauraraztean erantzukizuna du honenbestez.

5.- Gatazka politikoa izaki, ezinbestekoa da gatazka hau bideratzen duten arrazoi politikoa gainditzea, alderdi politikoaren ausardiaz gatazkaren konponbideari tentuz heltzea, unibertsitateari gatazka honen konponbidean errepresioaren apostua egin beharrean elkarrizketa eta euskaldunen hitza eta erabakia ahalbideratzea.

6.- Lierni fakultatean ikaslagun izan genuen bitartean euskal presoek ikasteko duten eskubidea lantzeko ahaleginak eta bi egin zituen, bai eta euren eskubideak errespetatuak izan ditezten. Guk ere lan honi ekinez Lierni, Argi eta euskal preso guztien eskubideak errespetatu ditezten eskatzen dugu. Lan honetan gurekin ibili ziren Argi Perurena (egun Fleury Mergien preso dagoena) eta Lier-nirekin batera, euren erueda eta lana gogoan izanez jarraituko dugu.

Ainhua, Agurtzane eta Eider

YOSUTHERMIK

LEIHO ISOLATZAILEAK

- PVC leihoak
- Aluminiozko hausdura termikodun leihoak
- Aroztegi mistoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak



Erakusketa
Ipiñarrieta, 3

☎ 943 725 232 **URRETXU**

Fabrikatik zuzenean

Kataide industrialdea, 4 pab.

☎ 943 770 157 **ARRASATE**

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



MUJIKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

gizarte-ekintza
obra social

Ataungo Ezker Abertzaleari erantzunez

Azken urteotan, Goierriarra edo beste komunikabide batzuen bidez Ataungo Udala kritikatu izan denean, ez dugu erantzunik argitaratu, askotan eztabaida eta ika-mika publikoak arazoen irtenbideak oztopatu ohi dituztelako, eta ondorioz, isileko eztabaida eta elkarriketen apostua egin izan dugulako.

Otsailaren 9an, Goierriarran, Mikel Irastorzak Ataungo Ezker Abertzalearen izenean sinatutako eskutitzean, kritikatzear gain mehatxatu ere egiten gaitu, beraz hainbat gogoeta egitea ezinbesteko jo dugu.

Gure harridura lehenik, Goierriarra aldizkarian era honetako mehatxuak leku izateak sortu digu. Iritzi askatasuna gauza bat da eta mehatxua beste bat, beraz ez zaigu nahikoa iruditzen kasu honetan, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik ez duzuela hartzen esatea. Hau oraindik larriago bilakatzen da, Goierriarra Goierriko Udalek, Ataungoa barne, diruz lagundutako aldizkari bat dela kontutan izaten badugu.

Ezker Abertzaleak mende gutxi egiten die herriko komertzio eta enpresei, gai politiko ezberdinen inguruan alde bateko edo besteko posturak hartzeko "gonbite"-ak eginez. Eduki ditzaketen iritzien gainera, gure babes osoa eskeini nahi diegu herriko enpresa eta komertzio guztiei gure herriare-

kiko egin duten aukeragatik, guztiz garrantzizko bai dira Ataunentzat. Ezker Abertzaleari berriz, babes berdina eman diezaien eskatzearekin bat, beraien iritzia errespetatuz gai politikoetatik kanpo utz ditzala eskatzen diogu.

"Ez da denbora asko Ataungo Udalak, antolatu zituena jaialdi batzuetarako informazioa herritar askori izkutatuta ziola". esaten da eskutitzean. Informazio hori Ataungo etxe guztietako buzoietara banatua izan zela kontutan izanik, ez dago izkutatuta izan zela esateko arrazoirik. Egia da herriko taberna batetan ez zela kartelik jarri, baina Udalean jasotako kritika baten ondorioz, jaialdia baino egun batzuk lehenago kartela jarri akatsa zuzendu ahal izan genuen.

"Egunero, ezker abertzaleko kuxua duten kartel eta propagandak paretetatik kentzen dizkigute, gainerantzekoek bertan jarraituz..." esaten da eskutitzean. Kartelak jartzeko herrian ditugun paneletatik kanpo eremu publikoan jartzen diren kartel eta pintada guztiak garbitzen ahalegintzen gara, nahiz alde batekoak nahiz bestekoak izan. Bai Ezker Abertzaleak eta baita beste edonork ere, dagokion lekuetatik kanpo kartelak jarri edo eta pintadak egin gabe, bere iritzi eta ideiak agertzeko baditu bitartekoak. Eremu publikoak garbi izatea elkarbizitzarako oinarri dela pentsatzen dugunez, horretan jarraituko dugu, nahiz eta askotan izugarritzko kostuak izan. Azken

pintadak garbitzea seirehun mila pezeta inguru kostatu da.

"Eta bide hau, bere bote-reagatik edo pribilegiozko ardura dutelako oztopatzen duen edonori gerta dakiokeenaren arduradun ez gara egiten". esaten da eskutitzean. Hau sinatzen dugunok, 1999ko maiatzaren 28an izan ziren Udal hauteskundeetan ataundarrek beraien botoz aukeratuak izan ginen. Ez dugu ez botere eta ez pribilegiarik, aurkeztu genuen programa aurrera eramanez eta herriko arazoei ahalik eta egokien erantzunez, herri hau zerbitzatzeko konprometua besterik ez dugu geureganatu.

Gerta dakigukeena aipatuz mehatxatzen gaituzue. Ez dugu sinestu nahi Ataungo Ezker Abertzaleak mehatxu hau bere egiten duenik eta zentzu horretan zuzenketa bat espero dugu. Horrela ez balitz, gerta dakigukeenaren erantzule bakarra Ataungo Ezker Abertzalea izango da.

"Askatasuna, demokrazia, pakea eta antzeko hitz potoloak hitz hutsak izatetik zerbait izatera eraman ditzagun. Horretan edonork lagun izango gaitu". esaten da eskutitzean. Baita gu ere.

Askatasuna. Ataundar guztion askatasuna. Herriarron iritzi askatasuna aldarrikatzen dugu, ezberdin pentsatzeko eskubidea. Ezberdintasunetik abiatutako elkarriketa eta elkarlanean erai-ki ahal izango dugu etorkizuna.

Demokrazia. Ataundarrok gehiengoz hartutako erabakiekiko errespetoa, hori da demokraziaren joku-araua, bai gustokoak direnean eta baita gustokoak ez direnean ere.

Pakea ataundarron arteko elkarbizitzan. Iritzi eta pentsamolde ezberdinen gainera, herriarron arteko errespetoan oinarritutako diren giza-harremanak.

Ez dira ez hiru hitz hauek hitz potolo hutsak guretzat, edukia duten hitzak baizik, helburu ditugu eta gure eguneroko lanaren ardatz dira. Beraz edukiekin bat egiten duzuen heinean bidelagun izango gaituzue. Eta bidelagun izango garen esperantza dugu.

Ataungo Udal gobernua


Aitor Auzmendi

Jesus Goikoetxea

Jaione Munduate

Iñaki Eskisabel

Santi Etxeberria



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Aparkalekuak

Gero eta zailagoa da hirian aparkatzea. Hori dela eta, gidari askok garajeak eta lurrazpiko aparkalekuak erabili behar izaten dituzte.

Kotxe piloa dago eta askotan sartu behar izaten dugu kotxea aparkaleku batean. Diru-kopuru baten truke, badakigu kotxea toki seguruan dagoela.

Dirua tarteko denean, kontratu bat sortzen da. Kasu honetan, kotxe-jabearen eta aparkaleku-jabearen arteko kontratua da. Beti bezala, nork bere eskubide eta betebeharrak ditu.

Aparkalekuan sartzean, tiketa jasotzen dugu munduko gauzarik arruntena izango balitz bezala. Oro har, ez dugu pentsatzen tiket hori jasotzeak benetan zer esan nahi duen.

Hasteko, kontratu baten aurrean gaudela jakin behar dugu. Kontratu bitxia, bai. Baina azken batean, kontratua da. Toki horretako arduraduna legez behartuta dago gure kotxea eta bertan dagoen guztia zaintzera.

Batzuetan, tiketeen edo

karteletan, honelako mezuak irakurtzen ditugu: *"Hemen aparkatuta dauden ibilgailuetan kalterik edo lapurretarik izanez gero, enpresak ez du bere gain hartzen erantzukizunik"*.

Legearen ikuspuntutik, horrelako adierazpenek ez dute ezer balio. Enpresak ezin du bere erantzukizuna bertan behera utzi besterik gabe. Esan dugun bezala, tiketa gordailu-kontratua da. Beraz, gure kotxeari eta barruan dagoen guztiari zerbait gertatzekotan, enpresa da erantzule.

Gordailu-kontratua behar den bezala ez betetzeagatik, hainbat enpresa epaitu eta zigortu egin dituzte. Honelako epai asko daude.

Aparkaleku pribatu batean kotxea edo barruan geneukan zerbait lapurtuz gero, gogoan izan kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dugula.

Horrelakorik gertatuz gero, ez galdu burua baina ez eman amore. Eta aparkalekutik atera baino lehen, eskatu egiaztagari bat bertan egon zarela frogatzeko.

Ez atera aparkalekutik agiririk gabe.

Enpresaren erantzukizuna da tokia zaindu eta bertan dagoen guztia jagotea. Beraz, zerbait gertatzekotan, enpresa da erantzule bakarra.

Gidariok aparkalekuko arauak eta seinaleak errespetatzera behartuta gaude. Eta kotxe-aparkalekuaren truke, tarifa ordaindu behar dugu.

Legeak oso garbi dio. Zure kotxeari edo bertan dagoen edozeri zerbait gertatzen bazaio, kalte-ordaina eskatzeko eskubidea duzu zalantzarik gabe. Enpresaren erantzukizuna da eta.

- Kotxeaz gain, kotxe barruan dagoen guztia ere kontratuan sartuta dago.
- Errespetatu aparkalekuko arauak.
- Arazorik sortuz gero, jo zure herriko Kontsumitzaileen Elkartera.

EKA

(Euskal Herriko

Kontsumitzaileen Antolaketa)

Euskara txukunean

Emango? Etorriko? Ikusiko?

Galdetzeko modu hauek zuzenak al dira?

Goierrri alde honetan behintzat, forma horiek ez dira erabiltzen eta ez dira hedatu, baina Goierriatik kanpo, beste herri batzuetan, erabilia da umeei zuzenduta, hau da, haur txikiei askotan laburtuta, eta batzuetan erdi desitxuratuta, hitz egiten diegu, eta hor egoera horretan erabiltzen da dirudienez. Halere, ez da egokia kontestu edo egoera horretatik aparte erabiltzea, ezta gutxiago ere.

Maizpide Euskaltegia

HORTZ KLINIKA



Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleg.

**Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia**

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.
☎ 943 88 92 87 **BEASAIN**

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



**GOKINDEGA
GARONA**

K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58	☎ 943 88 72 79	☎ 943 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

Lehiaketa

Galdera

**Nork irabazi zuen
2000. urtean
Gipuzkoako
Eskolarteko
bertsolari txapelketa,
handienen mailan?**

Erantzuna martxoaren
5erako bidali behar da,
Ordiziako 124 posta-
kutxara. Bertan izena,
helbidea eta telefono
zenbakia zehaztuz.

**Saria Gipuzkoako
Eskolarteko XIII.
bertsolari
txapelketako liburu
eta kaseta eta
GOIERRITARRA-
ren kamiseta.**

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren
erantzuna: otsailaren 4an

**Irabazlea:
Lierni Imaz
(Lazkao)**

- Oinetakoak erosterakoan zer eduki behar dugu kontuan?

- Ahal den eta erosoena aukeratu behar da, oinetakoak jantzita ia egun osoa ematen baitugu.

- Zer da garrantzitsuagoa: politak izatea ala erosoak izatea?

- Noski, garrantzitsuagoa da erosoak izatea, lehen esan bezala, baina biak bateragarriak dira. Zapata polit eta erosoak asko daude.

- Takoiak, bai ala ez?

- Ez, kuña korritua.

- Zer dago modan oinetakoetan?

- Gehienbat botak. Gaztetxoak bota handiak eta emakumeek bota altu eta finagoak. Gizonezkoek modari kasu gutxiago egiten diote eta erosotasunari begiraten diote.

- Zein kolore da nagusi?

- Beltza da oinetakoen kolore erregina baina negu honetan, granate, berde eta lilak oso kolore garrantzitsuak izan dira. Uda honetarako kolore bixiak eta argiak datoz, pastel koloreak hain zuzen (larrosa, urdin argiak, horiak, lilak...)

- Zein oinetako mota duzu gustuko?

- Zapata eta bota zalea naiz, kirol zapatilak gorrotatu egiten ditut oso txarrak dira hankentzat.

- Gehien saltzen den oinetako mota:

- Erosle motaren arabera dago. Gaztetxoa, emakumea, haurra edo gizonezkoa izan aldatzen da gehien saltzen den oinetako mota.

- Hanka azpian babarik ez ateratzeko, zer egin behar da?

- Oinetakoa justua ez hartu eta begiratu zabalera ez dutela estutzen. Honez gain, galtzerdia ere neurrikoa izan behar da.

- Zergatik uzten zaizkie zapatak Olentzero eta Erregeei?

- Horrela da tradizioa, ezta?

- Negu honetan eguraldi ona egiten ari al da oinetako saltzaileentzat?

- Ez da eguraldi ona zapatak saltzeko. Eguraldi txarragoa behar genuen baina...

- Zein neurri dira arruntena?

- Emakumezkoetan 37-38 eta gizonezkoetan 42-43 dira arruntak. Baina oraingo neska-mutil gazteek askoz ere hanka handiagoa daukate. Neskak, 39-40 eta mutilak 44-45.

- Inoiz ikusi duzun hankarik handiena, zein neurritakoa da?

- Nire dendara etorri den hankarik handiena duen erosleak 50 zenbakia zuen, mutil gazte bat zen.

- Inoiz jo al zaituzte zapatilarekin?

- Noski, amak umetan noizbait... Ni mutil txintxoa izan naiz eta...



**Oskarbi
Gurrutxaga**

Oskarbi oinetakoak



AUSOEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✕ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✕ Berogailuak
- ✕ Iturgintza
- ✕ Zeramika erakusketa
- ✕ Bainuko altzariak
- ✕ Erreforma osoak



Takolo, Pirritx eta Porrotx Nikaraguan izan dira 15 egunez:

Nikaraguan bildutako materialarekin osatuko dute hurrengo ikuskizuna

Urtarrilaren 23tik otsailaren 7ra bitartean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, beste hainbat euskal herritarrekin batera Nikaraguan izan ziren. 8 guztira. Tartean, Oñeka Garmendia zalbitarra joan zen, Ordiziako Musika Eskolako irakaslea. Nikaraguan materiala bildu eta datorren urtean gai horri buruzko ikuskizuna prestatzea dute helburu.

Honek Gobernu Kanpo-ko Erakundearen bidez joan ziren Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Nikaraguara. Proiektu ezberdinak ari da garatzen Honek Nikaraguan. Somoton daukate Quinchoen eskola edo aterpetxea eta bertatik bideratzen dituzte lan ezberdinak.

Takolo, Pirritx eta Porrotxekin alaitasun piska bat eraman nahi izan dute Nikaraguara. Bigarren aldia zuten pailazoez Atlantikoa pasatzen zutela. Iaz, Estatu Batuetan, Idahon izan ziren Kilometroak jaiaren ospakizunen barruan.

Azkeneko hiru egunak tu-



Hamelingo xirulariaren antzera, herrian buelta ematen zuten haurrak biltzeko.

rismo piska bat egiteko erabili badituzte ere, gainerako egunetan, saioak izan dituzte, leku eta egoera ezberdinetan. Lehenengo astebetea,

Somoton pasatu zuten, Nikaragua iparraldean. Handik mugitzen ziren kamioneta batean. Tenpanek, Esteli, Okotal, Somoto eta Kusma-

pan ibili ziren. Azkeneko herri hau, Nikaraguako altuena da, eta bertakoek ziotenez, bertaraino ez omen zen iritsi aspaldian horrelako ikuskizunik. Medicus Mundi elkar-tearen eskariz egin zuten ikuskizun hau, pailazoen aitzakian, haurrak bildu eta hauen pisua, garaiera eta abar neurtzeko helburua baitzuten.

Azkeneko egunak, Managua hiriburuan egin zituzten.

'Parrandan' ikuskizuna

Azkeneko ikuskizuna eraman dute Nikaraguara. Hori bai, hemen egiten duten baino montaia txikiagoarekin. Lekuaren arabera moldatu dute ikuskizuna, askotan oso leku txikietan egin behar izan baitituzte saioak.

Emanaldiak hasi aurretik, txistu, pandero eta akordeoia-ekin kalejira egiten zuten kalez kale, haurrak bilduz eta kaleetan giroa jarritz.

Hizkuntzaren arabera ere moldatu behar izan dute 'Parrandan' ikuskizuna. Batetik, gaztelerara moldatu dute, eta bestetik, Nikaraguako hizkera eta azentura. Hasieran arraro samar sentitzen ziren, eta nahikoa parre egin omen

'Parrandan' ikuskizuna eraman dute Nikaraguara. Hori bai, gaztelerara moldatu behar izan dute, noski, hango azentuarekin eta hango hizkerarekin.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

zuten. Hanka sartu, behin baino gehiagotan egin omen zuten. "Zenbait kasutan hizkera ezberdina erabiltzen da. 'Culo' esatea adibidez, han oso itsusia da. Ipurtzuloa esan nahi du eta ipurdiari 'nalga' deitzen diote. Beraientzat izugarritzko harri-dura izaten zen. Era honetako hankasartze asko egiten genituen. Euskaldunok zer nolako hizkera daukagun pentsatuko zuten", esan zuen Onekak.

Harrera ona

Harrera ona egin diete Nikaraguako txikienei. Handiekin ere ez dira ez gaizki moldatu. "Etxean bezala tratatu gaituzte", esan digu zaldibitarak.

Hango umeak hemengoak baino gauza gutxiagorekin moldatzen dira, noski. Baina. "azken batean, umeak beti ume dira. Hemen beti haien berri zoritxarretan bakarrik izaten dugu. Egia da zoritxar asko gertatzen zaizkiela baina umeak oso alaiak dira. Orokorrean, oso jende bizia da, bakoitzak bere erara ateratzen du bizia. Umeen parte-hartzea handia izan da gure ikuskizunetan".

Nikaraguako telebistan elkarriketa egin zieten eta Euskal Herriaren berri aire-ratu zuten.

Guachiplin txotxongiloak

Managuan Guachiplin txotxongilo taldekoen egoitza egon ziren. "Oso onak ziren, baina oso aukera gutxi daukate aktuatzeko. Sandinismo



Nikaraguari buruzko ikuskizuna

Takolo, Pirritx eta Porrotx bi helburu nagusirekin joan dira Nikaragua aldera. Batetik, alaitasun piska bat eramatera, irriparra eskaintzera; eta bestetik, Nikaraguako haurren berri jaso, beraien kanta eta dantzak bildu eta datorren urtean, Nikaraguara Euskal Herriari piska bat gerturatzeko helburuarekin.

Euskal Herriko haurrak sentsibilizatu nahi dituzte beraz Takolo, Pirritx eta Porrotxek. Hurrengo diskoa Nikaraguaren ingurukoa izango da. 15 bat minutuko bideoa grabatzeko asmoa ere badaukate, ikastetxeetan zabaltzeko. Bide batez, dirua bildu eta Nikaraguara bidali nahi dute, "gure ekonomiak apurka orekatu, bi kulturak hurbildu eta irribarreak batu".

Bidaia honen helburua beraz, honela laburtu digu Oneka Garmendia zaldibitarak: "Eramatera joan gara, baina ekartzera ere bai".

garaian gehixeago baina orain kultura mailan oso lan gutxi egiten dute. Kaleko umeekin, kola esnifatzan zuten gaztetxoekin, emagaldutxoekin... lan egiten zuten. Jende honi eman beharreko mezua txotxongilo bidez ematen die", esan digu Onekak.

Hauei esker, kola esnifatzan zuten eta emagaldutxoekin zuten 14 bat urteko gaztetxoentzat ere egin zuten ikuskizun bat. "Guk ez genekien nola jokatu, ez baitira haurrak. Nola hasiko gara ba, kutxi, kutxi... Hangoek lasai egoteko esan ziguten, haurtzarorik sekula ezagutu ez

zutela eta. Gu larri. Baina ume bihurtu ziren".

Egoera gaitzen

Duela pare bat urte Mitch haurkanak kalte handiak egin zituen Nikaraguan. Piskana-ka-piskana egoerari buelta ematen ari zaie. Etxebizitza berriak eraikitzen ari direla ikusi dute. Euskal Herriko jendea aurkitu dugu proiektu ezberdinetan lanean.

Nikaraguan zer ikasi duten galdetu diogu azkenik Oneka Garmendiarri: "Pobre-ak dira, baina ez dira miserableak. Ezer ez daukate, baina daukaten gutxi horrekin moldatzen dira. Umeek ez dute negarrik egiten, han ibiltzen dira haur guztiak elkarrekin jolasean... Hemen ez dauzkagun balore asko daukate. Materialki oso gutxi daukate, baina bestela asko".



Kamioneta batean ibili ziren Nikaraguan barrena, "salto eta brinkoka eramaten gintuen herrietara, bihurtu gunez beteriko bidexkatan zehar, hautsak harrotuz".

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

943 88 51 68

ORMAIZTEGI

Beka metodologia da aurtengo berrikuntza:

X. Gerriko ikerketa-bekako oinarriak

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkar-teak, Maizpide euskaltegiak eta Lazkaoko Udalak antolatu eta Kutxak eta Euskadiko Kutxak laguntzen duten X. Gerriko ikerlan-bekako oinarriak aurkeztu ziren otsailaren 14an. Aurtien sistema zertxobait aldatu eta 1.000.000 pezetako beka jarri dute mahai gainean, ikerketa lagin edo proiektu egokiena aurkezten duenarentzat. Goierri buruzko edozein gairen inguruan egin daiteke ikerketa. Apirilaren 26an bukatzen da lanak aurkezteko epea.

1989an sortu zen Gerriko Ikerlan Sariketa Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkar-tearen eskutik. Bigarren edizioarako Maizpide Euskaltegia ere antolatzaile izan zen eta laugarrenerako, baita Lazkaoko udala ere. Harrezkero, hiru erakundeek antolatzen dute lehiaketa. Kutxa eta Euskadiko Kutxaren laguntza du lehiaketak. Kutxak, 1.000.000 pezeta ematen du saria emateko; eta Euskadiko Kutxak, ikerlana argitaratzeko dirua. Oinarrien aurkezpenean erakunde guztietako arduradunak izan ziren.

8. edizioan hasi ziren sariketa bi urtean behin antolatzen, batetik, arazo ekonomikoengatik, eta bestetik, lanari egoki erantzun ahal izateagatik. Urte hauetan guztietan, 26 lan izan dira aurkeztuak: horietatik 19 sarituak. 18 dagoeneko argitaratuak daude, 15 liburukitan. *"Guztiekin Goierri eta goierritarrei buruzko liburu bilduma osatzen ari gara"*, diote antolatzaileek.

Beka sistema

Bukatutako ikerlanak aurkezteak lan handia eskatzen zuela eta, aurtien beka metodologiari ekitea erabaki dute antolatzaileek. Hau da, parte hartzaileek, 15 bat orrialdetan, ikerketaren proiektua edo la-

gina aurkeztu beharko dute. Epaimahaiak proiektuak saritu eta urtebeteko epea eman-go zaio irabazleari, ikerlan guztia amaitzeko.

Sariketarekin zorretan

Andoni Aizpuru, Pello Joxe Aranburu eta Nekane Urdangarin ere izan ziren oinarrien aurkezpenean. Inoiz Gerriko ikerlan sariketa irabazitakoak dira hiruak. Aizpuru esan zuenez, Gerriko sariketari zor

Oinarriak

Munduko edozeinek har dezake parte Gerriko Ikerketeta-bekan. Bakarka nahiz taldeka egin daitezke lanak. Ikerlanaren gaiari dagokionean, gaia, Goierri dago-kion edozein zientzi alorretakoa izan daiteke: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasuna, industria, nekazaritza, biologia, historia, ekonomia, medikuntza, injinerutza, zuzenbidea, pedagogia, psikologia, filosofia, informatika eta abar. Herri mailakoa nahiz eskualde-mailako izan liteke. Edozein garaitako ikerlanak onartuko dira. Herriei buruzko monografiak ere aurkez daitezke. Euskaraz, eta ez euskarara itzulitako, ikerlan originalak, beste inon saritu eta argitaratu gabeak, izan behar dute.



Martin Artolain Kutxako ordezkaria, Arantxa Olaizola Euskadiko Kutxako ordezkaria, Felix Urkola Lazkaoko alkatea, Marian Bidegain Maizpideko zuzendaria, Andoni Sarriegi GEEko lehendakaria, Joxe Martin Apalategi zuzendari zientifikoa, Mari Jose Madariaga GEEko langilea, eta Andoni Aizpuru, Pello Joxe Aranburu eta Nekane Urdangarin, inoiz Gerriko ikerlan sariketa irabazi dutenak, Donostian emandako prentsurrean.

dio kazetaritza munduan sartzea. Aranburuk ikerketa mundua ezagutzea eta bertan murgiltzea zor dio Gerrikori. Urdangarinek azkenik, bere

herria, Ataun, gehiago ezagutzea. Beraz, sariketa honetan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte guztiak.

Datorren apirilaren 26an, eguerdiko 12etara aurkeztu behar dira eskaerak, bertan honako sei puntuak zehaztuz 15 bat orrialdetan: ikerketa esparrua, izenburua eta tesia, materialak eta lan metodologia, helburuak, lanerako plana eta lanaren interesa. Lazkaoko Elozegi kaleko 16. zenbakiko lehenengo pisura bidali behar dira lanak. Eskatzaileen nortasun agiriaren kopia, curriculum vitae eta harremanetarako telefonoak zehaztu behar dira.

Aukeratzen diren proiektuek hiru puntuok kontuan izanda egin beharko dute lana: edukia zientifikoki azaldu, ikerlana dagokion material grafikoz eta bibliografiar hornitu eta euskara zuzen eta egoki erabili. Jasotzen diren proiektuen arabera epaimahai hiru erakunde antola-

tzaileek izendatuko dute.

Beka 1.000.000 pezetakoa izango da. Epaimahaiak proiektu bat baino gehiago diruz lagundu nahi baditu, kopuru hori guztien artean banatuko da. Epaimahaiak hala erabakitzen badu, lanen kalitatea nahikoa ez delako, beka eman gabe utz dezake.

Erabakia ekainaren 29an jakinaraziko da. Ondoren, urtebeteko epea izango du/dute ikertzaileak/ek ikerlana erabat bukatuta entregatzeko. Dirulaguntza hiru zatitan ordainduko da: onartutako %40a eskatzaileak oniritzia ematen duenean, %40a sei hilabetera, egin duen lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena aurkeztutakoan eta %20a, beka onartu eta urtebetetera, ikerlana erabat bukatuta aurkeztu ondoren.

Kultur astea martxoan, 5etik 11ra

Martxoak 5, astelehena:

17:00etan: Antzerkia eta merienda, Kaskoko ludotekan.

18:30ean: Ipuin kontaketa Arrate Leundaren eskutik, Kaskoko ludotekan.

19:00etan: Bonsai inausketen erakustaldia, ludoteka berrian.

Martxoak 6, asteartea:

15:30ean: Kultur ibilaldia Olaberriko natura ezagutze-ko.

17:30ean: Talo eta euskal pastela egiten ikasteko aukera, Arkupe elkartearen.

18:30ean: Javier Fernandez eskutik, 'Ordesako xarma' ikusentzunezkoa, Arkupe elkartearen.

Martxoak 7, asteazkena:

18:15: Alzheimer gaixotasunari buruzko hitzaldia, Gizarte zentroan.

19:30ean: 'Kontsumo, etxebizitzaren erosketa', Beatriz Inurritegirekin, Kaskoko ludotekan.

20:30ean: Baserritarrei zuzendutako hitzaldia, Kaskoko ludotekan.

Eskulan erakusketa

Urtean zehar eskulanetako tailerrean egindako lanen erakusketaren ikusgai izango da Elizako portikoan, kultur asteak irauten duen egunetan. Ordutegia: astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara eta larunbata eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Martxoak 8, osteguna:

15:30ean: Bideojokuen eraginak hitzaldia, Kaskoko ludotekan.

19:30ean: 'Chiapas, Zapatisten altxamendutik bakearen aldeko kanpamendu zibil-letara' hitzaldia, Xabier Buñuelosekin, Arkupe elkartearen.

21:00etan: Emakume langilearen eguna ospatzeko emakumeen arteko afaria.

Martxoak 9, ostirala:

17:30ean: Musikan trukea, Kaskoko ludotekan. 17:00etatik 20:00etara jostailuak bilduko dira ludoteka berrian.

21:30ean: Herri afaria. Txotx herriko sagardoa, Udal pilotalekuan. Donato Goienetxe eta Edurne Iturbe trikitixa eta perkusio bikoteak giroa alaituko dute afarian.

Martxoak 10, larunbata:

9:30ean: V. Joxe Kerejeta Memoriala, herriko bolatokia.

11:00etan: Zuhaitz eguna. Datozen jaietarako, San Juan zuhaitzaren igoera ohitura mantentzearen, herrikoek

makalak landatuko dituzte, herriko plazan.

11:30ean: Umeen pala erakustaldia, udal pilotalekuan.

12:00etan: Musika, bideojokoak eta internet, Kaskoko ludotekan.

12:30ean: Gazteen pala erakustaldia: Xabier Berasategi, Iker Arrieta, Garikoitz Arrieta, Jose Manuel Garrido eta Jose Luis Sarasola, udal pilotalekuan.

19:00etan: Talo festa, plazan.

22:30ean: Golden Apple Quartet musikariaren kontzertua, udal pilotalekuan.

Martxoak 11, igandea:

11:00etan: Patineten lasterketa, kaskoan.

12:00etan: Marrazki tailerra, plazan.

13:45ean: Herrialde ezberdinetako jatorrizko jakiak, udal pilotalekuan. Dultzaineroek alaituko dute giroa.

Ondoren: Ordiziako bertso eskolako bertsolari gazteak.

Arratsaldean, herrialde ezberdinetako festak. Tartean: 'Albaro' taldea, 'Os Galaitos' taldea eta Tolosako dultzaineroak.



MUJIK



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Goierni bus

Segurtasun eta kalitatezko
zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50

Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin



Gasa etxeetara iristeko lanak abian

Benta Txiki inguruan bi gas biltegi jarri eta handik, gasa herri guztira banatzeko lanak hasita daude. Repsol konpainia ari da proiektua gauzatzeko eta udarako lanak bukatuta egotea espero dute. Bukatu bitartean, herriko kale eta espaloietan zuloak, zangak eta makinak izango direla eta, pazientzia eskatu die Udalak herritarrei.

Aspalditik zuen Udalak orain hasitako lan hauek egiteko asmoa. Hirigintza batzordetik jakitera eman denez, "proiektua ez da Udalerena, enpresa pribatu batena

baizik, hori dela eta beraiek erabakitakoan hasi dira lanean". Benta Txiki inguruan, Zubimendi alderako bidearen ondoan jarriko dituzte herri osorako bi gas biltegiak. Horrenbestez, gasa herriko eraikin guztietara iristea nahi du Udalak, "eliza eta farmazia bitarteko etxeetan ez dago gasik, goiko eta beheko barrioetan berriz, auzo bakoitzerako deposituak daude". Depositu horiek desagertu egingo dira. Hamar urtean behin deposituak atera egiten dira errebisiorako, eta lekuan lekuko deposituak horretarako ga-



raia iristen zaionean, betirako kendu egingo dituzte. Herri guztiak biltegi berrietatik hartuko du gasa.

Horretarako, ordea, herria lurpetik zeharkatuko duen gas bidea osatu behar da eta horrek ekarriko ditu buruhauste gehien. Udalean kezka ere badute "herri guztiko bide eta etxeen aurrealdeak zulatu behar dira eta hori kontu handiz egin beharreko lana da". Lanak kale nagusian hasiko dira. Gas bide nagusi horretatik, auzoetara bideratuko da ondoren. Ehun metroka egingo dituzte lanak. Herrigunean tarte txikiagoetan ere bai, lur azpian tuberia gehiago dagoelako.

Lanak irauten duten bitartean, Repsolek informaziorako bulegoa edukiko du zabalik Pilarrenean. Astean bitan, oraindik zehaztu gabe dago zein egunetan, egongo da za-

balik. Gas bide berriaren proiektua bertan egongo da jarrita. Informazioa eskatu edo zalantzaren bat argitu nahi duten herritarrek, Udalerara ez, beraien bulegora joateko eskatu du Repsolek. Udalak ere eskari bera egin du. Bide batez, lanak irauten duten bitartean, Udaleko langileek gertutik jarraituko dituztela ere jakinarazi dute.

Xabier Urteaga

Inauteriak

Kultura Batzordeak, Inauteri festa antolatu du gaurko (otsailak 23, ostirala). Iaz hasitakoaren bidetik, eta aurreko idiaza-baldarren ohiturak berreskuratu nahian, mozerro zuri eta zatar jazteko eskaria egin dute antolatzaileek. Hau da inauteri jairako egitaraua:

Arratsaldeko Setan: mozerro guztiak elkartuko dira plazan. Mozerro zuriek eta zatarrek dantza egingo dute.

Ondoren; kalejira txarangarekin

Gaueko 9,30etan: Mozerro afaria pilotalekuan.

Ondoren, Txarangaren laguntzarekin jarraituko du festak.

Korrika

Apirilaren 2an iritsiko da Korrika Idiazabala. Aurrekoetan bezala, AEK-k herrian batzorde bat sortzeko deialdia egin du. Aste honetan bertan sortu da Idiazabalgo Korrika batzordea. Edozein herritarrek du batzordean parte hartzeko aukera.

Eskulan ikastaroa

Aurtengo eskulan ikastaroa antolatu nahian, dei bat egin da herri mailan nahi duen guztiak izena eman dezan. Ikastaroa martxoaren 6an

hasitako asmoa dago. Beste urte batzuetan bezala Kultur etxean, arratsaldeko 2,30etan hasita.

Mus txapelketa herriko Ostatur

Martxoaren 3an izango da aurtengo mus txapelketa Ostatur, arratsaldeko 4etan hasita. Jartzen den baldintza bakarra, bikote partaideetarikoa bat mutiloarra izatea da. Txapelketaren ondoren nahi dutenentzat afaria egongo da.

San Pedro jaietarako bilera

Piskanaka badatoz San Pedro jaiak, antolaketarako bilera otsailaren 24an egingo da, iluntzeko 9,30etan, Udaletxeko aretoan.

Iñaki Ugalde

Gaur, inauteri jaiak

Ostirala jai eguna bilakatu zaigu Zegaman, festa honen antolaketan, Aitxuri Herri Eskolak, Guraso Elkartek eta Kultur Etxeak parte hartzen dutelarik. Mozorroak, txokolate jateak, afaria eta txiste lehiaketak, denetik izango da.

Otsailak 23, ostirala:

14:30etan: Aitxuri herri eskolako haurren irteera.

16:00etan: Txokolate jatea, udal arkupeetan eta buruhandiak haurrentzat.

20:00etan: Mozorrotuen afaria udal arkupeetan.

Ondoren: Txiste lehiaketa, 12 urtetik beherakoentzat eta 12 urtetik gorakoentzat. Saria: irrati CDduna talde bakoitzarentzat. 5 txiste kontatu behar ditu parte hartzen duenak. Saria sorta onenari emango zaio.

Oharrak: Bertaratu guztientzat txokolate beroa izango da. Afal ondoren bakoitzak bere mahai jaso behar du.

Zaharkinak

“Zaharkinak” proiektuaren lehen bilera joan den asteazkenean egin zen Udaletxean, bertan Fermin Leizaola izan zelarik proiektuaren xehetasunak azaltzen. Zegamarentzat proiektu garrantzitsua delakoan gaude, izan ere bere historiaren zati garrantzitsu bat betirako jasoko baitu hau burutzen denean. Gaiaren garrantzia ikusirik, Zegamako Udala Jubilatu Elkartaren Zuzendaritza Batzordearekin harremanetan ipini da, beren partehartzea garrantzitsua bezain beharrezkoa ikusten delako, hala nola, herriko zenbait gazterekin ere harremanetan ipini da proiektuan parte hartzeko; esan bertan edonork parte har dezakeela, beraz interesik baduzu zatoz Udaletxera.

Proiektuaren haseran herriko baserri edota kale-etxetako jabeekin harremanetan jarriko da Udala baserriko



Zegama eraldatzen

Azken hilabete honetan hasitako obrak aurrera doaz. Jadanik Santa Barbara Kalea zulatu eta saneamendua sartu dute; bestalde ‘Herreria’ ere bota dute, zegamar guztion oroitzapenean baldin badugu ere eta Olanar auzoko Eskola Zaharren arrastorik ere ez da geratzen, Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko behar-beharrezko diren lur mugimenduak egin dituztelarik.

tresna zaharren katalogazioa egin asmoz, horretan Fermin Leizaola bera, Arantzadi Zientzia Elkarteko partaidea, nahiz herriko jendea ere ibiliko delarik; ondorioz, bakoitzak etxean zein tresna interesgarri duen pentsatzen edota lokalizatzen aritzeak denbora aurreratuko du eta aldi berean lana errezatuko du.

Besterik gabe, aipatu erakusketa maiatzaren 27tik ekainaren 24ra izango dela eta hori prestatzeko herrita-

rion atxikipena eta partehartzea beharko dela. Beraz, herritar adiskidea, jubilatu, heldu nahiz gazte, zuk ere parte hartu nahi baduzu zatoz Udaletxera (Edurne) edota dei 943 801351 telefonora.

Edurne Albizu

Kultur eta kirol ekintzak

Zuhaitz eguna: Martxoaren 7an, asteazkena, Axuri Herri Eskolako haur eta udal ordezkariak zuhaitzak landatuko dituzte goizean zehar.

Internet ikastaroa: Izen ematea martxoaren 15era arte.

Erretzeari uzteko ikastaroa, izango da martxoan zehar. Izen emateko epea jakinaraziko da.

Aitzgorri F.T.: Martxoaren 4an, ohorezko haurren mailan Aitzgorri-Zarautz eta kadeteen 2. mailan Aitzgorri-Behobia.

Frontenis txapelketa, larunbatero jokatzen da arratsaldeko 3etatik aurrera.

Finalista MEC-en

Irakaskuntza Kalitateko Sariketan

Espainako Hezkuntza Ministeritzak, irakaskuntzaren kalitatea sustatzeko antolatutako estatu-mailako sariketa da MEC-a. Andramendi, Beasaingo Ikastola, ikasketa araututako Ikastetxe kontzertatuen modalitate aurkeztu zen. Memoria bat bidali behar izan zuten, eta aurkeztu zirenen artean aukeratuak izan ziren. Ondoren, Madrilko hiru ebaluatzaile izan ziren azaroan Andramendi, Beasaingo Ikastola hori egiaztatzen. Ebaluatzaileen txostenak goraipatzen du bai guraso, bezero eta langilegoaren asebetetze-maila, Andramendi, Beasaingo Ikastolak hau-tatu duen Hezkuntza Proiektuarekin eta lidergo ereduarekin.

Bestalde, Euskalit Euskal Herriko ikastetxeen artean bildutako indikadoreen artean ere onena agertu da Andramendi, Beasaingo Ikastola. 99/00ko ikasturterako eskatutako indikadoreen artean aurrena da, eta gainerako



gehienetan ere batz-bestekotik gora dago. Andramendik du emaitzarik onena, gai hauetan: ikasleen ikuspegian, DBHko ikasleen asebetetze mailan, gurasoen ikuspegia aztertzen duten indikadoreen artean, ikastetxea eta gurasoen arteko harremanari dagokion puntuan, eta langilego mailan, zuzendaritza eta langilegoaren harremanetan.

Hezkuntza-emaizetan ere oso aurrera dabil Andramen-

di. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzan ikasleek %100ean ikasturtea gaingitu duten ikastetxeen artean dago.

Andramendi, Beasaingo Ikastola sortu zenetik ari da bideratzen EFQM-ko parametroen arabera kudeaketa eta antolaketa, eta alde horretatik, ezer birrantolatzen baino gehiago, antolaketa eredu honetan eratzen asmatu duela esan daiteke.

rak urtekari honetan izan duen portzentairik handiena 1993. urtekoa dugu, %33 artikulua atera baitziren euskaraz. Hala ere, elebrietan ateratzen diren artikuluen kopurua gehitu egin dela azpimarratu behar dugu. Iaz, euskerara hutsean ateratakoen pareko izan ziren. Erdararen presentzia nagusi da beraz Beasain Jaietan Urtekari honetan.

Odol ateraldia

Odol Emaileen Delegazioak jakinerazten du, hurrengo odol ateratzea martxoaren 7an egingo dela Urbi-etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaillez gainera, berriren bat animatzen bada, bertara azal dadila.

Emakumezko langilearen eguna

Martxoaren 8a, emakume langilearen eguna ospatzeko asmoz, Emakumezkoen As- tea antolatu du Asmube El- karteak. Hitzaldiak, irtenal- diak, mahainguruak eta bes- te hainbat ekitaldi prestatu ditu martxoaren 5etik 9ra.

● **Astelehenean, hilak 5,** zeramikako tailerran egin- dako lanak ikustera joango dira Urbieta zentrura, arratsaldeko 4etan. Hariarekin egindako lanak eta bestela- ko eskulanak ere ikusgai jar- riko dituzte Loinaz tintore- riko erakuslehoian.

● **Asteartean, martxoaren 6an,** "Filosofia de los cui- dados paleativos" gaiaren inguruan hitzaldia emango du Amagoia Muruamendia- razek. Udaletxean 18:00etan.

● **Asteazkenean, kafe erre- zital kontzertua.** Amaia Zu- biria abeslaria izango da eta errezitaldia, Tere Irastorza eta Ane Arregik eskainiko dute. Osinbeltz kafetegian 17:00etan.

● **Ostegunean, hilak 8,** ir- teera kulturala egingo dute Donostiara, Diputazio jau- regia eta Miramongo Ku- txaespazioa bisitatuko di- tuzte.

● **Ostiralean, afaria** egingo dute Lierniko Mujika jate- txean. Oparien zozketa eta musika ere izango dute. Au- tobus zerbitzua jarriko dute.

Afarira eta irteerara joan nahi duzuenok aurrez izena eman behar duzu Asmubek Urbi-etxean duen egoitzan.

Nekane Altuna

Beasain Jaietan Urtekarian egindako euskararen erabilera

Beasaingo Jaietan aldizkaria kalera irten da- din aurrez egin behar izaten da lana eta dago- eneko herritar guztiei luzatu zaie gonbitea Beasainen inguruan artikuluren bat idazteko. Beasaingo Euskara Batzordeak, artikulua hauek euskaraz idaztea gonbidatu nahi du he- rritarra.

Izan ere, aldizkari honetan azken 20 urte hauetan kaleratutako artikuluetan egindako euskara hutsezko erabilera aztertzen badugu, aurrerapauso handirik ez dugula eman esan genezake. 1979an %16a izan zen euskara hu- tsean kaleratutakoa, iaz berriz, %19a. Euska-

Mus txapelketa Zubi-buru elkartean

Urteroko legeari jarraituz, Zubi-buru elkarteak Mus txapelketa azkarra antolatu du larunbat honetarako. Hogeita seigarren aldia da jokorako deia egiten dutena, eta

bertan parte hartu nahi duenak arratsaldeko laurak baino lehen eman beharko du izena elkartean bertan. Bestalde, aurreko larunbatean Ordiziako Argi-Berri elkar-



II. Zape Festa

Zaldibia Aralar Pottoka Elkartek (ZAPE) martxoaren 3an ospatuko du II. Zape Festa. Eguerdiko 12etan emango diote hasiera festari trikitixaz alaituriko poteoarekin. Ordubietan bazkaria izango da eta honakoa izango bertan dastatu ahal izango den menua: babarrunak, pottoka gisatua, gazta eta menbriloa. Bazkalostean, ustel batera jokatu den mus txapelketa egongo da. Ez ohiko bazkari honetaz gozatu nahi duenak otsailaren 24a baino lehen adierazi beharko die Zape ki-deei.



Gorriñe gaineko antena

Izango dira pare bat hilabete Gorriñeko gainean antena erraldoi bat kokatu zutenetik, baina aurreko astean jarri zuten behin betiko funtzionamenduan. Antena honen zerbitzuaren onuradunak Amena-Euskaltel etxeetako mobil erabiltzaileak izango dira. Orain arte kobertura arazoekin ibili zaretenak, ez duzue aurrerantzean honelakorik izango.

tean jokatu zen mus txapelketan Harriet Mendizabal eta Ibon Intsausti zaldibitar gazteak hirugarren sailkatu ziren.

interesatuek edozein zalan-tza izanez gero Txurru, Aitor edo Kultur Etxeko Lurdesengana jo dezakete.

Ski irteera Kandantxura

Gailurrerantz Kirol Elkarte-ko mendi sailak ski irteera antolatu du martxoaren 10 eta 11rako, urtero bezala. Kandantxura joateko deia egiten dute eta kirol hau praktikatzeko aukera ezberdinak jarri dituzte aurtengogan. Izena emateko epea martxoaren 2an bukatzen da eta

Batasuna prozesua

Batasuna prozesuko talde eragileak bihar, larunbata 24, Kultur Etxean egingo den batzarrerako deia luzatzen die herritarrei. Bilera goizeko 9,30etan hasiko da eta bertan, Bat Eginez txostenaren eztabaida emango da.

*Iñaki Gurrutxaga
Saro Jauregi*

URBITARTE
tolare
sagardotegia



Txotx denboraldia zabalik

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77
Okorro 6 - behe

Faxa: 943 16 09 33
ORDIZIA

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Goierriko gida turistikoaren aurkezpena

Azken urte hauetan Goierriko udalak, Goierriko Garapen Agentzia eta hainbat erakunde Goierriko turismoa bultzatzen eta aipatu eskualdeko baliabideak ezagutzera ematen egiten ari diren aholaginararen urrats berri baten aurrean aurkitzen gara. Lehenik, Lazkao, ondoren Zegama eta aurretikoan gure herria izan da eskualdeko turismoarekin zerikusia duen produktu baten aurkezpena egiteko aukeratu izan den herria.

Martxoaren 8an, goizeko 11etatik aurrera, Zumalakarregi museoan ospatuko den ekitaldian gida turistikoaren aurkezpena

egingo da. Aipatu ekitaldia bai Euskal Herriko baita atzerriko ordezkariak duten pertsonai ezagunek parte hartuko dute. Hain zuzen bertan izango dira Bulgariako enbaxadorea Madrilen, Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako kultura

Goierri

Gipuzkoa Euskadi

Una semana y algo más Astebete eta zerbait gehiago



Irizar mugak hautsiz

Gure herriko Irizar kooperatiba oraingoan ere berri onekin datorkigu. Egun hauetan egunkari eta telebistetako albistegieta-ko ohiko lekuko bilakatu da. Oraingoan ere azken urteetan aurrera daraman hedapenaren ildo beretik datozkigu berriak.

Batetik, otsailaren 16an Donostian autobus berria aurkeztu zuen; bestetik, Indian enpresa berri baten ateak irekitzeaz dago. Autobus berriari dagokionez esan behar azken teknologiaz eraikitako diseinua duen ibilgailua dela, segurtasun neurri apartekin. Gure herriko enpresak mundu mailan zein nolako ospea duen behin eta berriz baieztatu izan badute ere oraingoan ere nahikoa izan da datu bat, autobusa aurkeztu aurretik hainbat bezerok beraien autobus erosketak Irizarri egin- da zituztela jakiteak guztia argitzen du.

Aitziber Murua

sailburua, Koro Garmendia Eusko Jaurlaritzako kultura sailburuordea, Jose Ramon Beloki Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo diputatua, Jon Mikel Murua Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazari- tza eta Ingurugiro di- putatua, Nikolas Osinalde Goiekiko turis- mo teknikaria, Iñaki Maiora herriko alka- tea eta beste hainbat herritatik etorritako ordezkariak ere.

Gure eskualdeak di- tuen baliabideak eza- gutzera emateko ezin- bestekoak dira aur- kezteaz dagoen gida

turistikoa bezalako bitarte- koak. Turismoa eskualdera- ko garapen bide bilakatzea etorkizun laburrean erronka garrantzitsu bat dela argi du- te gure herrietako agintari eta erakundeetako ordezkariak. Herritarrok ere erronka ho- rrekiko arreta berezia jar de- zagun mereziko du, gure es- kualdean errotuta dauden tu- rismo baliabideak eta erro- tzeaz dauden ezagutza eta garapena guztion zeregina baita. Beraz, oraingoan turis- mo arloan abian jarri den proiektu berri baten aurkez- pen bertatik ezagutzeko au- kera dugu, jaso ezazue herri- tar guztiek aipatu ekitaldian parte hartzeko gonbidapena.

Endika Alustiza memoriala

Otsailak 25, igandea, Udala, Kultur etxea eta Liztormendi Elkarrekin antolatuta, VIII. Endika Alustiza Memoriala, bola lehiaketa izango da Liz- tormendi bolatokian.

Lehiaketa goiz eta arratsalde- z jokatu da, izen ematea goi- zez 9,30etatik 11,30etara, arratsalde- z 4,30etatik 5,30- etara izango da.

Informatika gela

Kultur etxean prestatu den in- formatika gela bere lehen pausoak ematen hasia da ja- danik. Ohiko ordutegiz kanpo antolatuta zeuden informati- ka ikastaroetan, 14 lagun, bi taldeetan banatuta ari dira ber- ren lehen urratsak ematen.

Ordenagailu hauen erabil- pena herritar guztientzat ire- kia da, baina horretarako baz- kide txartela atera behar da. Bazkide egiteko interesatuta daudenak edo informazio gehiago nahi dutenak bertako

arduradunarekin jarri daiteze- la harremanetan.

Zeraindarra saritua

XI. Beasain idazlehiaketan, hitz lauz sailean A mailan, 3. saria Arantzazu Muñoa ze- raindarrarentzat izan da.

Lehiaketa hau Beasaingo Udala antolatzen du, eskual- deko ikastetxetako ikasleen- tzat, bertan 161 idazlan izan ziren hautatuak eta horietatik 26 sarituak.

Mari Flor Mendizabal



Hegats igeriketako nazioarteko proba martxoaren 3an

Futbola, saskibaloia, pilota, igeriketa, eskubaloia, areto futbola, atletismoa, errugbia eta abarrez gain urpeko taldea ere indarrean dabilkigu Ordizian. Urte mordoska pasa da OKE Urpekoak taldea sortu zenetik eta harrezkero inguruan herriaren izen ona barreiatu besterik ez dute egin. Orain, nazioarteko emaitza nabarmenik ez bada ere aurrera darraite kirol taldeko antolatzaileek jende gaztea animatu nahian hain sona handikoa ez den kirol honetara hurbil dadin. Momentuan 30 gazte inguru dabilta iluntzetan entrenatzen eta entrenatzaileek diotenaren arabera etorkizun handiko pare bat badabilta.

Udako denboraldia amaitu eta nahiko lasai ibili dira orain artean taldeko igerilariak. Neguko denboraldia, ordea, martxan jarri da jada eta espainiar estatuko txapelketa apirilaren 3 eta 4an izango denez, berau prestatu asmoz "Hegats Igeriketako I. Nazioarteko Irekia" antolatu dute OKE Urpekoak taldekoek datorren martxoaren 3rako. Aipatu larunbatean goiz eta

arratsaldeko saioetan egun espainiar estatuan dauden federaziorik indartsuenetako urpeko igerilariak parte hartuko dute (Katalunia, Galizia, Valencia, EAE, Nafarroa...) eta frantziar estatutik Toulouseneko taldeak ere parte hartuko du. Aipatu hegatsak edota aletak erabiliz jokatu dira probok goizean 9etatik aurrera eta arratsaldean 4,30etatik aurrera. Majori igerileku estalian jokatu da Ordiziako lehen hegats igeriketa proba hau.

Lagunarteko futbol txapelketa martxan

XXII. Lagunarteko Futbol Txapelketa martxan jarri zen pasa den asteburuan. 14 taldek eman dute izena aurtengoan eta Badago eta Because Rangers talde antolatzaileek bi multzotan banatu dituzte taldeok. Lehen multzoan Irrintzi, E.R. Matxain Ilea-paindegia (iazko txapelduna), Because Rangers, Ferrocarril Oeste, Usunbilla, Urbitarte Sagardotegia eta Bustunmira taldeak arituko dira lehian eta bigarrenetan, berriz, Morapios, Tximista Sagardotegia,



93 bikote Argi Berriko mus txapelketa azkarrean

Oscar Peregrino eta Angel Jimenez ordiziarrek izan ziren Argi Berri Elkarteak antolatutako XXIV. Mus txapelketa Azkarreko irabazleak. 93 bikote hartu zuten parte aipatu txapelketan eta arratsalde guztian musean aritu ondoren Ibarrako Haritz Oiarzabal eta Gorka Goikoren kontra aritu behar izan zuten nor baino nor txapelak bururatu asmoz. Ibarrako gazte hauek gauzak errez jarri ez bazizkien ere, azkenik ordiziar bikotearentzat izan ziren 150.000 pta.k. Sailkapeneko 8 lehenengo bikoteak lortu zituzten sariak.

Oraingo honetan ere Euskal Herri guztiko muslariak inguratu ziren Bustuntza auzoko txapelketara. Gehienak gipuzkoarrak baziren ere, nafarrak ere baziren. Izan ere txapelketak eskaintzen dituen sariak ez dira nolanahikoak eta gainera hor dago Sarri Tabernak eskaintzen duen Kubarako bidaia txapelketa hiru bider irabazten duen bikotearentzat. Argazkian hor ikus ditzakegu irabazleak finalean arerio izan zituzten muslariekin. Egun berean egindako zozketan hauek izan ziren zenbaki sari-dunak. Arkumeak: 4.407, 0.042, 5.017 eta 2.748. Antxumeak: 1.343, 4.661, 5.287 eta 3.232.

Vicuña Sport, Badago, Sylum, Harrike eta Wiskas. Ligaska jokatu dute hemendik maiatza bitartean eta bigarren fasera multzo bakoitzeko lau onenak sailkatuko dira. Hemendik aurrera beste ligaska bat jokatu beharko dute bi multzotan banatutako 8 taldeok eta uztaila hasieran izango da final handia. Ohi bezala neurketak larunbat arratsalde eta igande goizetan jokatu dira anexo futbol zelaian.

Kultur astea

Urdaneta-Oianguren ikastetxea aste kulturalean murgilduta ibili da aste guztian zehar. Ume, gazte eta gurasoen zat hainbat eta hainbat ekin-tza burutu dira goiz eta arratsaldetan eta amaiera, astele-

henen jai egin ondoren, asteartean, hilak 27, emango diote arratsaldeko 3,30etan egingo duten fantasiazko desfilearekin. Txotxongiloak, ipuin kontalariak, antzerkia, dantzak, kempo, tailerrak, herri kirolak, pailazoak... esan bezala, denetik.

Kaldereroak

Azken urteetan bezala gardaragile edota kaldereroek bisita egin ziguten joaneko asteburuan. Hainbat elkartetan afaldu eta Garagartza Plazan zuten kanpamendua altxatu eta herriko kaleetan zehar ibilbidea egin ondoren Enparantza Nagusian ezarri zuten berriro ere kanpamendua. Zarata eta kantuak protagonista izan ziren gau guztian zehar.

Aitor Calvillo

Josu Sarriegi primeran

Otsailaren 17an debutatu zuen lehen mailan Josu Sarriegi herritarrak. Iruñako Sadar futbol zelaian jokatu zuen Osasunaren aurka eta Alavesek 0-1eko emaitzarekin irabazi zuen partida. Hainbat komunikabideetan Alavesen defentsak egindako lana nabarmendu zen, eta hauen artean lazkaotar gazteak bere lehen partiduan eman zuen maila.

Goierritarraren aurreko alean jakinarazi genuenez, azken bi urteetan Alaveseko bigarren taldean aritu ondoren, Karmonaren lesioa dela eta lehen mailako taldearekin entrenatzen ari da Josu.

Villarreal, Zaragoza eta Milango Inter taldeen aurka-ko partidak aulkixotik ikusi ondoren Osasunaren aurkako derbian izan du bere aukera.



Hainbat komunikabideei egindako adierazpenetan batez ere haserako minutuetan lehen mailarako jauzia nabaritu zuela esan zuen. Baina ondoren gustura jokatu zuela. Aldizkari hau kaleratu bitartean Milanerako bidaia egingo du Josuk, San Siro futbol zelaian jokatzeko irrikaz.

Osasuna eta armoniaren astea

Maizpidek, Goierriko Euskal Eskolak eta Udalak, martxoaren 5a eta 8a artean hitzaldi eta ikusentzunezkoak antolatu dituzte. 'Osasuna eta armoniaren astea' izenburua jarri diote ziklo honi. Hona egitaraua:

Martxoak 5, astelehena: Karmele Benitok, 'Erretzeari utzi. Izan al daiteke medikua lagun bat?' hitzaldia emango du, 21:00etan, Maizpiden.

Martxoak 6, asteartea: Karmele Benitok, 'Zer da homeopatia? Noiz eta nola erabili behar da?' hitzaldia emango du, 19:00etan, Kultur etxean.

Martxoak 7, asteazkena: Joxe Ramon Agirre 'Marron'ek, 'Pirinioak armonian' ikus-entzunezkoa emango du, 21:00etan, Maizpiden. Izenburu berdineko erakusketa ikusgai izango da Maizpiden martxoaren 5etik 18ra.

Martxoak 8, osteguna: Karmele Benitok, 'Komeni al da iratzargailua goizean goiz? Zer da estresa? Zergatik? Nola aurre egin?' hitzaldia emango du, 19:00etan, Kultur etxean.

Hitzaldia

Maizpiden otsailaren 27an 'Nola eskuratu jateko ohitura onak' hitzaldia eskainiko dute Ane Miren Uranga eta Arantxa Lorenzok, 21:00etan

Bertso trama afaria

Korrika kulturalaren barruan, bertso trama afaria izango da martxoaren 3an Gerriko txokoan, iluntzeko 9etan hasita. Bertsolariak Jokin Soroazabal eta Aitor Mendiluze izango dira eta tramagilea Josu Goikoetxea. Izen ematea Gerriko tabernan edo Gerriko liburudendan egin behar da.

Euskal dantza ikastaroa

Udaleko Kultur batzordeak euskal dantza ikastaroa antolatu du herriko dantza taldearen eta Kutxa Gizarte Ekin-tzaren laguntzarekin.

Ikastaro honen xedea edozein adineko herritarrei euskal dantzak ikasteko aukera eskaintzea da. Izan ere, orain artean ikastaro hauek ume eta gazteei zuzenduta zeuden soilik.

Ikastaro hau martxotik maiatzera bitartean gauzatu-ko da. Eguna, ordutegia eta matrikula (izango balitz) oraindik zehazteko daude. Hain zuzen ere Udaletxeko Areto nagusian otsailaren 27an, asteartea, arratsaldeko 8etan izango den bileran erabakiko da.

Beraz, parte hartu nahi duzuenok agertu zaitezte bi-

Herriko futbol txapelketa

Herriko futbol txapelketako bigarren itzulia hasia da dagoeneko. Aurten taldeak zoriz osatu badira ere aipatzekoa da taldeen artean dagoen parekotasuna. Edozein talde edozeini irabazteko gai dela argi geratu da lehen itzulian.

Seigarren jardunaldia jokatu ostean honakoa da sailkapena:

1. Top Less. 13 puntu.
2. Ez dakigu ezer. 10 puntu.
3. Asuntoa. 10 puntu.
4. T'urko's. 7 puntu.
5. Harrapatuak. 7 puntu.
6. Penélope Cruz. 4 puntu.

Aipatu otsailaren 24 eta 25ean ez dela partidarik izango inauteriak direla eta.

lerara aukera paregabea baita.

Laida Oiarbide
Inko Mujika



Halaxe dei geniezaioke erdizte bakarrean bost arkume jaio dituen ardiari. Duela aste bi gertatua da honakoa Aiako Txulo baserrian. Miraria badirudi ere, arraza kontua izanik, errusiar arrazako ardi hauengan haurdunaldi oparoak izatea arrunta omen da. Hala ere bat-batean 5 izatea ez da egunero gertatzen den zerbait. Hala iritzi zioten ETBkoek ere eta herrian izan genituen gertakari bitxi honen berri emateko.

Silo bolen plastikoaren bilketa

Silo bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa kanpainak aurrera darrai. Bilketa hilean behin egiten jarraituko da, 3.astea, hain zuzen ere. Uda bitartean ondoko egunotan egingo da bilketa: martxoaren 20an, apirilaren 17an eta maiatzaren 15ean.

Plastikoa bezperan edo egun berean atera beharko da. Egunean ateraz gero, goi-

'Koñaro'ren lehen urteurrena

Inaxio Aierbe 'Koñaro'ren heriotzaren lehen urteurrena izan zen joan den otsailaren 14an. Urteurrena ospatu asmoz hainbat ekintza antolatu ziren herrian. Otsailaren 14an Arnaldo Otegik hitzaldia eman zuen Herri Antzokian. Larunbaterako bestalde, eguerdian "Axio"ren monolitoan ekitaldia antolatu zuten eta ondorenean bazkaria, San Gregorioko frontoian. Bazkalostean, Inaxioren jaiotetxera, Lauztierrekara joan ziren eta iluntzean, bere arreba Karmelek Inaxioren izena daramakien plaka agertaraziz hasiera eman zitzaion omenaldiari San Gregorioko frontoian. Esan behar da, aurrerantzean Inaxio Aierberen Enparantza izango dela San Gregoriokoa.



Talojana '01

150 lagun inguru bildu ziren joan den larunbatean Joxemiel Barandiaran eskolan egin zen talo-janera. Ez da hau ordea antzerako ekintzarik antolatzen duten lehen aldia. Urteak daramazki eskolak gurasoekin eta ikasleekin elkarlanean horrelako ekintzak antolatzen. Urtero antolatzen dituzte gaztina-jana udazken partean eta talo-jana orain, negu partean. Joan den larunbatean ere giro ederrean dastatu ahal izan zituzten talo bero goxoak bertara joan zirenek eta ondorenean, Ataungo musika eskolako trikitilarien musikaz alaiturik, ordu txikiatararte luzatu zen tertulia. Txalogarria dudarik gabe egun daramakigun bizimoduarekin horrelako ekintzen antolaketa. Urte askoan jarrai ezazue horrela, beraz.

Inauteriak '01

Inauteriak badatozkigula eta Joxemiel Barandiaran eskolako haur eta irakasleek jaialdiak antolatu dituzte aste honetarako. Asteazkenean, hilak 21, Herri Antzokian ospatu zuten jaialdia eta ostiral honetako berriz, eskolan izango da. Herri Antzokian ospaturiko jaialdira Gabiri eta Zegamako haur eta irakasleak etorri ziren gonbidatu gisa. Denetarik ikusi ahal izan zen bertan. 3, 4 eta 5 urtekoak karramarroz jantzirik dantzan, Euskal Aerobic-a, txotxongilo, abesti, kontakizun, antzerki...

Ostiral honetarako, berriz, 2,30etan hasita antolatu dute festa eskolan. Ondoren txokolate beroa ere izango omen da.

zeco 10ak baino lehen egitea beharrezkoa izango da. Udalak aurrez itxitura bat egingo du honako bilketa puntuotan: San Martinen (mediku etxe atzean), Lauztierrekan (Arratiñeko bidegurutzean), Urkilla-laga gainean eta Arratetan (Agererrako bidegurutzean).

Bestalde, plastikoa baka-rrik ateratzea aholkatzen da, sokak eta antzerakoarik gabe, erreziklatzeko arazoak ematen baititu.

Bitartekoak hor ditugu, orain gure esku geratzen da horiek erabiltzea.

Agurtzane Bikuña

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA



✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN



Iñausti
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

Lore eta landare azoka

Udalaren inizatibaz, udaberriko lore eta landareen I. azoka antolatuko da Seguran, martxoaren 25ean. Horretarako lehen bilera pasa den astean burutu zen. Bertan, herriko zenbait elkarte, talde eta partikular elkartu ziren. Bilerak astero izango dira eta antolaketaarako interesa duen edonork parte har dezake. Informazio gehiago udaletxean, 943801006 telefonon.

Erakusketa gune berria

Elorri Kultur Elkartek kultur zerbitzu berria eskainiko du aurrerantzean. Edozein herritarrek duen argazki, pintura, bilduma... erakusketa gunea egokitu da (ikusgaiak zintzilikatzeko sistema eta argiteri berezia) Elorripe tabernaren barnealdean. Lanen bat erakusgai jarri duenak Elorri kutur taldekoekin jarri behar du harremanetan.

Kirol eskolarra

Asteburuan etxean:

● **Pelota:** zapatuan, 24an, 10:00etan hasita, Baratzen: benjaminak Murumendikoen kontra. Ondoren alebinak Lazkaoko San Benito eta ataudarren kontra jokatuko dute.

● **Tenisa:** 11:30ean hasita, neska alebinak Alkartasuna Lizeokoen kontra.

● **Mendi irteera:** goizeko 8,30etan irtenda Urrakira.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Infantilak: Arrasate 4-1 Aizkorri. Jubenilak: Segura 3-4 Idiazabal. **Preferentea:** Anaitasuna 2-1 Segura.

Asteburuan etxean: Preferentea: ostiralean, 20:00etan, Segura-Urola.

Herri eskolaren VIII. kultur astea

Asteartea 27:

- **Hitzaldia.** Jakoba Errekondok natura eta zuhaitzei buruz. Goizeko 10etan eta ikasleei eskainia.

- **15:00etan:** mozerro festa plazan. Ikasleek taldeka eskainitako ikuskizuna. Ondoren txokolate jana.

Asteazkena 28:

- **Goizez,** Juan Kruz Igerabide eta Peio Añorga ipuin kontalariak goiko eta beheko eskoletan.

- **19:00etan:** diapositiba emanaldia Kultur etxean. 'Munduari itzulua 17 urtetan'. Hondarribiko familia baten belauntzi bidaia. Ondoren, solasaldia.

Osteguna 1:

- **Goizez** txotxongilo emanaldia eta tailerra, 2tik 8 urte artekoentzat.

- **14:45ean,** haurren jaialdia (antzerkia, abestiak...) aterpetxean.

- **17:00etan,** musika eskolakoen emanaldia aterpetxean.

- **19:00etan,** kirolari buruzko mahai ingurua. Alustiza, Imaz, Gaztañaga, Villariño eta Loren. Aterpetxean.



Argazkian, mozerro festako emanaldia plazan.

Ostirala 2:

- **Goizez,** Segurako haurrek zegamarrei eskainitako jaialdia aterpetxean.

- **Arratsaldez,** jolasak.

- **17:00etan,** eskolako dantzariak herriko plazan. Ondoren buruhandi eta erraldoiak.

Zapatua 3:

- **Goizez,** herri kirolak. Eskolako neska-mutikoak plazan.

- **Arratsaldez,** berbena herriko plazan, 'kroketa sopa'.

- **22:00etan,** 'Eunate' biolontxelo eta saxofoi emanaldia, Peio Ramirezek eta Josetxo Goia-Aribek eskainia.

Jaia 4:

- **Zuhaitz eguna** martxoaren 3an bada ere, 4an eskolako haurrek 20 gerizondo inguru landatuko dituzte herriko hainbat lekutan.

- **Ondoren,** hamaiketakoak plazan.

Jokin Izagirre

Gipuzkoako bola erregularitate txapelketako 3. saioaren ondoren 1. postuan jarraitzen du Jokinek (186 birla), 2.ak baino 3 birla gehiago jota. Goierriko bola txapelketan otsailaren 10ean, Kortan,

Xepeño Agirrek irabazi zuen.

Labur-labur

● **Udal aurrekontuak.** Udaleko gobernu batzordeak 2001erako aurrekontuak aurkeztu zizkien batzorde ezber-

dinei urtarilaren 30ean. Orain, emendakinak jasotzeko prozesua zabaldu da. Otsailaren amaiera alderako aurrekontuak onartzea espero da.

● **Eskulan ikastaroa.** Martxoaren hasieran hasiko da. 30 ordukoa, astean ordubetez, eguerditan, Kultur etxean. Irakaslea: Iñaxi Urreta. Informazio gehiago udaletxean.

● **Korrika bilerak.** Sortu berria den batzordea asteazkenero ari da biltzen 20:00etan Kultur etxean Korrikaren inguruko antolaketa gauzatzeko.

● **Odol emaileen bazkaria.** Martxoaren 25ean. Izenak Jermanenen edo Drogerian eman behar dira.

Joseba Telleria



Urrezko ezteiak

Antonio Garaialdek eta Manoli Goikoetxeak ezkondu zireneko 50. urteurrena ospatuko dute martxoaren 4an. Eguerdiko 1ean meza izango dute parrokan eta ondoren famili arteko bazkarian elkartuko dira. Beraiekin batera, beren semea den Peio Garaialdek eta bere emazte Mari Jose Urkiolak zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte. Argazkian, Antonio eta Manoli, 1951ko urtarilaren 18an, Segurako eliza atarian, ezkondu ziren egunean.

Joan den abenduaz geroztik daude Goierrin

Alex Primatxenko eta Andrei Tistxenko

Ordiziako errugbilari ukraniarrak

Ordiziako errugbi taldean bi ukrainiar ari dira, biak ere Kiev-ekoak. Alex Primatxenko 31 urtekoa eta Andrei Tistxenko 26 urtekoa. Biei ere lana eskaini zieten Goierrira etorri ahal izateko. Andreik etorri orduko belauneko lesio larria izan zuen, lotailu gurutzatuko haustura, eta erreabilitazio lanetan ari da orain.

Hirugarren ukrainiar bat ere etorri zen urtarrilean, lanean hasi ere bai baina herri-minez ez zuen etsi eta berriro itzuli zen Ukrainiara. Alex eta Andrei, berriz, ederki ari dira hemengo bizitzara moldatzen. Lehena Labe-Lan enpresan ari da lanean, gaztelaniaz poliki moldatzen da eta euskaraz ere hitz batzuk egiten ditu. Axio Araña, entrenatzaileak azaldu digunez, "lanagatik-eta erderaz lehenago ari da ikasten baina gure entrenamendu guztiak euskara hutsez dira eta beraien lehenik ingelesez egin beharra izaten genuen eta orain, berriz, gaztelaniaz".

Andreik, bere lesioa dela eta, denbora gehiago pasatzen du etxean bakarrik, hori dela eta gutxiago hitz egiten du. Hasieran lesioa zela eta bidaliko ote zuten beldur zen, baina Alexen eta gainontzeko taldekideen dirulaguntzari esker hemen jarraitzen du.



Alex Primatxenko, Axio Araña (entrenatzailea) eta Andrei Tistxenko. Azken hau etorri berritan lesionatu zen.

Gustura daude Ordizian

Ordizian oso gustura daudela diote, bai taldean, lagunekin, eta eguraldiarekin: "Klima ere Kieveauen nahiko antzekoa da, nahiz eta hemen

hotz gutxiago egiten duen", diote. Errugbia, berriz, hemengo teknikoagoa iruditzen zaie. Ukrainian gimnasioan giharrak gehiago lan-tzen dituzte eta indarrak ga-

rrantzi gehiago du, fisikoa-goia da errugbia. "Ukrainian futboleko jokatzeko da gehiago. Errugbi talde gutxiago daude, Kieven talde handi batzuk bai, baina ez daude hemen hainbat talde txiki herrietan", diote.

Alex Sobietar Batasuneko selekzioarekin jokatuakoa da eta profesionalen bizitza egiten zuten, errugbira bakarrik dedikatuz. Ondoren Polonian ere jokatu zuten eta orain batez ere lanpostuarengatik etorri dira Ordiziara.

Alexek adinagatik ez du uste jokatzeko urte asko jarraituko duenik, baina Ordizia 2. mailara igotzeko ahalgina egiteko prest dago. Andrei, berriz, gazteagoa den oraindik kirolari bizitza luzeagoa du.

Entrenatzailea itxaropentsu

Axio Araña urte askotan Ordiziako errugbi jokalaria izan zen eta orain taldeko entrenatzailea da. Ukrainiarrekin gustura eta itxaropentsu dago bera. "Itxaropen handiarekin hasi genuen denboraldia, ukrainiarrak etortzen zirenean salto handia emango genuela uste genuen. Ukrainiarren etorrera luzatzen joan zen eta azkenean abenduan bi etorri ziren. Handik gutxira Andrei lesionatu zen eta urtarrilean etorri zena, etorri orduko alde egin zuen. Beraz, taldea ez da espero genuen bezainbeste indartu".

Liga larunbat honetan bukatuko dute eta dagoeneko 2. mailarako igoera faserako sailkatuta daude. "Gainontzeko taldeak asko indartu dira eta gu, azken finean, etxekoekin bakarrik gaude. Gainera lana dela eta zenbait jokalarik atzerri joanda ditugu. Baina, itxaropena izan beharrean gaude".

Entrenatzailea oso gustura dago jokala-

riekin, "Alex maila handian ari da jokatzeko, baina adinean aurrera doa. Batez ere gizon handiak behar ditugu, arlo horretan dugu eskasia". Axioarentzat garrantzitsua da orain ukrainiarrekin harreman zuzena izatea. Horrela, beste jokalariren bat ekarri nahi izanez gero ez dituzte hainbeste zailtasun izango.

Hasieran ikusmin handia zegoen, "partiduetara ere ikusle gehiago etortzen ziren, baina berriro lehengo kopuruetara itzuli gara. Jendeak eta baita jokalariek ere pentsatzen zuten atzerriarekin partidu guztiak irabaziko genituela. Baina hauekin ere galtzen da. Dena den egindako apustuarekin gustura gaude. Hasieratik ere bagenekien ez direla profesionalak, errugbirako balio izan behar dute, lanerako ere bai, hemen gustura egon behar dira, hizkuntza eta bizitzara ohitu behar dira... Iruditzen zaigu zailena egin dugula".

Ordiziako Baga Bigak ateak itxiko ditu

Martxoaren 1etik 3ra agur ekitaldiak izango dira

Ordiziako Baga Biga kulturgaiak dendak ateak itxi egingo dituela eta, 'Bagoaz' izenburupean, ekitaldi sorta izango da Ordizian, martxoaren 1etik 3ra. Hitzaldiak, filmak, kontzertua... Ramon Lizarraga eta Xabier Dorronsorok, dendako arduradunek, agurra era honetara "ospatu" nahi izan dute.

Ordiziako Baga Biga Kulturgaiak, liburu eta diska denda duela ia 5 urte ireki eta gero, ateak ixtera doa. Denbora honetan euskal kulturagintza eta atzerriko argitarapenak goierritarrei behar bezala eskaintzen saiatu dira Xabier Dorronsoro eta Ramon Lizarraga. "Saiaitu bai, baina arrazoi ezberdinengatik egungo egoera gaindiezina suertatu zaigu", diote. Goierriko kulturagune bezala sortu zuten, ikastaro, hitzaldi, liburu aurkezpen, filmina emanaldiak, eta abar erakutsiz. "Merkatal legearen aginduz, ordea, 'Negozio exkultural' hauen ezinak behartu gaitu erabaki hau hartzea", aitortu digute.

Hau dela eta, martxoaren 1etik 3ra, egitarau berezia



Xabier Dorronsorok eta Ramon Lizarragak Goierriko kulturagune bezala sortu zuten Baga Biga.

prestatu du Baga Biga kulturgaiak dendan, 'Bagoaz' izenburupean. Hitzaldiak, zineak, musika... denetarik antolatu dute. Ordizian izango dira ekitaldiak, Barrena kultur etxean eta Gaztetxean.

Liburugintza eta musikagintza

Bi gai hauen inguruan hitzaldia antolatu dute eztabaida eta gogoeta egin nahi baitute.

Liburugintzari buruzko hitzaldia martxoaren 1ean izango da, 21:30ean, Barrenan. Euskal liburugintzaren ekoizpena, argitarapenak, banaketa, salmenta; irakurzaletasuna ala kontsumismo hutsa; liburuak espazioan,

merkatalguneak, 'tetrabrikak' eta informatika; euskal liburugintza... gai hauen inguruan arituko dira besteak

beste, Arantxa Artza, Hasier Etxeberria, Xabier Mendiguren, Pako Aristi, Alfonso Martinez Lizarduikoa eta Juan Luis Zabala.

Musikagintzaren inguruan ere eztabaida beretsua egin nahi dute. Internet, kopiak, pirateoa... kultur eta negozioa; komertzio txikiak eta herri inguruetako merkalguneak; euskal musikagintzaren 'DurangOrgamosa'... eta abar izango dira mintzagai. Gonbidatu artean, besteak beste, hauetxek daude: Joseina Etxeberria, Oier Lamikiz, Hurbil Artola, Mikel Esnal, Mikel Markez, Pello Irizar, Iñigo Etxenike eta Marisol Bastida. Barrenan izango da hitzaldia ere, martxoaren 2an, gaueko 9,30etan.

Gainerako ekitaldiak

Martxoak 1, osteguna:

19:30ean: François Truffauten 'Fahrenheit 451' filma, Barrenan. Ondoren solasaldia.

21:30ean: Liburugintzari buruzko hitzaldia, Barrenan.

Martxoak 2, ostirala:

17:00etatik 17:30era: laburmetraiak, Gaztetxean.

19:30ean: Stephen Frearsen 'High Fidelity' filma, Barrenan. Ondoren solasaldia.

21:30ean: Musikagintzari buruzko hitzaldia, Barrenan.

22:00etatik 01:00etara: poesia emanaldia, kontzertua eta DJotak, Gaztetxean.

Martxoak 3, larunbata:

22:00etan: amaierako kontzertua, Erga Omnes eta Sen taldeen eskutik, Gaztetxean.

IN AUSTI
KARROZERIA



N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

Olagi
Sagardotegia



Eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

Kilometroak 2001 kanta: irakasle, bazkide eta gurasoek kantatua

Ur da Lur taldearena da 'Garena Garela' 2001eko Kilometroetako kantuen musika. Hitza, berriz, Tere Irastortzarena. Kantu honen sortzaileak Beasaingo Ikastolako langile eta gurasoak dira, kantuekin ikastolaren izpiritua islatu nahi delako. Izan ere abeslariak Beasaingo Ikastolako irakasleak dira, abestian Ikastolako guraso nahiz bazkideek parte hartzen dute.



Ur da Lur taldeak egin du musika, hitzak Tere Irastortzarenak dira.

Ur da Lur Nafarroako Sakanako taldea dugu. Taldekideak honakoak dira: Itziar Flores (ahotsa eta zeharkako flauta), Erkuden Flores (ahotsa eta bibolina), Luis Kintana (baxua) eta J. M. Arzelus (kitarra). Talde honek duela lau urte Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako lehen saria jaso zuen. Ekitaldi horretarako sortu bazen ere, bere proiektuak aurrera darrai. Hala ere, taldekideak talde ezberdinetan ibiliak dira, hala nola, Ortzi, Trikimailu eta Skalariak. Era berean,

1998. urtean Beasaingo Ikastolak antolatutako 'Eguberriz' kanpainarako 'Hitza bihotzera' kantuen musika sortu zuten; hitza, orduan ere, Tere Irastortzak jarri zuen.

Lau kantuko CDa

Lau kantuk osatuko dute Kilometroetako CDa. Bata, Kilometroetako kantua; bestea, Eguberriz kanpainarako egindako 'Hitza bihotzera' kantua; eta beste biak Ur da Lur taldearenak dira. Aurrerago jarriko da salgai CDa. Lerro hauen bidez jakinaraziko dizuegu.

www.kilometroak.com

25 urte atzera bai, baina aurrera egin beharra dagoela eta, teknologia berrietara egokitu da Kilometroak 2001. Argia astekarikoen laguntzarekin, web orria sortu da. www.kilometroak.com helbidean, Kilometroak 2001-i eta Andramendi, Beasaingo Ikastolari buruzko informazioa aurkituko duzu, argazki eta testuz osatua.

Ez da behin betiko web orria izango, etengabe moldatuz eta osatuz joango dira Argiakoak, informazioa eguneratuz.

Beraz, egunean egon nahi izanez gero, GOIERRITARRA aldizkarian gain, sarean ere izango duzue aukera.



Kilometroak 77ko argazki bilketa

Duela 25 urte Beasainen ospatu zen Kilometroak 77ko argazki bila dabil Kilometroak 2001eko antolaketa taldea. Biltzen den materialarekin erakusketa egiteko asmoa dago. Beraz, argazkiren baldin badaukazu, Beasaingo Euskadiko Kutxaren gainean dagoen Kilometroak 2001eko bulegora joan eta bertan utzi ditzakezu. Izen-abizenak eta telefono zenbakia utzi eta argazki guztiak itzuliko dira.



Andramendi. Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.

E-posta: beasain@ikastola.net



Ikastolen Elkartea

Tel/fax 943 88 96 17

ZINEA

goieniz



GOIENIZ:

Martxoak 8, 'Blancos' film laburra eta **'Los cinco sentidos'** 21:00etan, Usurbe Antzokian.

'Los cinco sentidos'
Jeremy Podeswa
(Kanada, 1999)

Giza zentzumenen inguruan osatutako drama hunkigarria dugu: ikusmena, entzumena, usaimena, dastamena eta ukimena. Bost zentzunen beste hainbat pertsonaien arazoak adierazteko eta giza harreman gustagarrien bila egiten duten ibilbidea irudikatzen. Istorioa hiru egunetan zehar gauzatuko da, neskatila bat desagertutako parkearen ondoan bizi eta lan egiten baitute gure bost lagunek, guztiak ere krisi pertsonaletan murgilduta. Filmean aurrera joan ahala, bere zentzunen batean sakonduz, bakoitzak bere benetako nahiak argitzeko pista aurkituko du.

ORDIZIA:

'Los padres de ella'.

Ostirala 23: 22:15

Larunbata 24: 19:30 - 22:15

Igandea 25: 19:30 - 22:15

Astelehena 26: 19:30

'Los picapiedra en viva rock vegas'.

Igandea 25: 16:45

antzerkia

BEASAIN:

Martxoak 2, Bederen Bat taldearen 'Laurel eta Hardy zerura bidean', 22:15ean, Usurbe antzokian. Euskaraz.

hitzaldiak

BEASAIN:

Otsailak 26, Haurdun dauden emakumeei zuzenduriko hitzaldi informatiboa. Gipuzkoako Alzheimer Elkarteak kide batek beste hitzaldia emango du.

musika

ORDIZIA:

Martxoak 3, Erga Omnes eta Sen taldeen kontzertua, Gaztetxean, 22:00etan.

ORDIZIA:

Martxoak 1, liburugintzari buruzko hitzaldia, Barrenan, 21:30ean. Hizlariak: Arantxa Artza, Hasier Etxeberria, Xabier Mendiguren, Pako Aristi, Alfonso Martinez Lizarduikoa eta Juan Luis Zabala. Aurretik François Truffauten 'Fahrenheit 451' filma ikusteko aukera izango da.

dantza

BEASAIN:

Otsailak 27, mozerro jaialdia Erretiratuen etxean, 18:30ean.

Martxoak 2, musikagintzari buruzko hitzaldia, Barrenan, 21:30ean. Hizlariak: Joseina Etxeberria, Oier Lamikiz, Hurbil Artola, Mikel Esnal, Mikel Markez, Pello Irizar, Iñigo Etxenike eta Marisol Bastida. Aurretik Stephen Frearsen 'High Fidelity' filma ikusteko aukera izango da.



Olatz Aranburu
Alaitz Zubizarreta

- BERRABILKETA
- DRENAJE LINFATIKOA
- OSTEOPATIA
- ARNAS APARATUKO ARAZOAK
- MASAIK
- ETXEZ-ETXEO TRATAMENDUAK

Tel: 943 88 19 64 / 607 73 82 78
Santa Maria, 16
20240 Ordizia (Gipuzkoa)

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Hautzaindegia-ludoteka
Zabalik urte osoan zehar:

- ✕ **Hautzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- ✕ **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- ✕ **Hautzaindegia-ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- ✕ **Kanguroak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

'Beasain esku-eskuan': Murumendi

Tomas Salazarrek prestatu du 'Beasain esku-eskuan' liburu bildumaren 3. alea. Murumendi menditik ikus daitezkeen 100 mendiren deskribapena egin du beasaindarrak. Besteak beste, mendien garaierak, bertaratzeko beharrezko denborak eta distantziak azaltzen dira bertan.

Martxoaren 1ean egingo da liburuaren aurkezpena, Beasaingo udaletxean, arratsaldeko 7,30etan.

bestelakoak

BEASAIN:

Martxoak 7, Ipuin kontaketa, Arrate Leundaren eskutik, 18:30ean, Udal Liburutegian.

erakusketak

BEASAIN:

Otsailan, IX. pintura lehiaketan aukeratutako margoen erakusketa, Aterpe tabernan.

Otsailan, 'Goierrri publizitatean' erakusketa, Zinema tabernan.

Martxoaren 2ra, Iñaki Sanchezen argazki erakusketa Aterpe tabernan.

Martxoaren 3tik 11ra, Mamen Arrutiren erakusketa, Usurbe Antzokian.

Otsailaren 25era arte, Benito Canteroren erakusketa, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Martxoaren 2ra arte, Hans-Jorg Dürr artistaren pintura erakusketa, Barrenan.

Martxoaren 9tik apirilaren 6ra arte, Patxi txiki artistaren pintura eta eskultura erakusketa, Barrenan.

SEGURA:

Ekaina bitartean, Rafa Berasategiren argazki erakusketa, Atsedenen.

Kimetz kontaketa lehiaketa

Ordiziako Kimetz, Emakumeen eta kultur eta gizarte taldeak zazpigarren kontaketa lehiaketa antolatu du aurten ere. Oinarriak dagoeneko plazaratu dituzte.

18 urtetik gorakoek har dezakete lehiaketan. Lanak lehenengo aldiz aurkeztuak izango dira eta beste inon saritu gabeak.

Gaia librea izango da. Gutxienez 5 eta gehienez 10 orrikoak izango dira lanak. Euskaraz nahiz gazteleraz. Mekanografiatuta aurkeztu beharko dira lanak, espazio bikoitzean eta orrialde batetik idatzirik. Lan bakoitzaren hiruna kopia bidali beharko dira. Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea kontuan edukiko da. Lanak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira Ordiziako Barrena kultur etxean (Nikolas Lekuona enparantza, z/g).

Epaimahaia literatur munduko adituek osatuko dute. Erabakia ekainean plazaratuko da.

Sariei dagokienez, bi sari banatuko dira: euskarazko lanetan onenari 100.000 pezeta emango zaizkio eta gaztelerazkoan onenari beste hainbeste. 25.000 pezetako akzesita ere izango da emakumezko batek idatzitako lanik onenarentzat.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Otsailak 24-25: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

943 887 221

610 020 041

BEASAIN



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako
ogi naturala

943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.



Joan Iturralde, 5 943 160 120

BEASAIN

ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- * Unibertsitate-maila
- * Batxilergoa
- * DBH
- * ...

ESKOLA LAGUNTZA

- * Maila eta arlo guztietan

TAILERRAK

- * Ortografia
- * Irakurmena - idazmena
- * Kalkulua, logika
- * Testu lanaketa

Orain ZERBITZU BERRIA:

IRAKASLEA zure ETXEAN!

Informa zaitez!



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa

OLABERRIA

Etxebizitzak

salgai

➡ Beasainen 90 m²ko etxebizitza eta garajea salgai. Moblezatua eta egutera. 943884744 edo arsuaran@euskalnet.net

➡ Tolosako Zumalakarregi auzoan pisua salgai. 2 logela, sukalde-sala eta komunarekin. Igogailua dauka. 19.500.000 pezeta. 943187289. Arratsaldezu deitu.

errentan

➡ Pisua alokatu edo konpartituko nuke Goierri. 653742819. Eva.

➡ Beasain inguruko herriren batean logela bila nabil. 943 361963.

Ibilgailuak

salgai

➡ Toyota Camry auzoa salgai. Ondo zaindua. 500.000 pezeta. 943883106. 19:30etik aurrera deitu.

➡ Yamaha Aerox scooterra salgai, gorribeltza. Egoera onean. Eguterdietan deitu. 943884207.

➡ 50 cm³-ko scooterra salgai, Suzuki Katana markakoa. Urez errefrigeratua. 2 urte eta 6 hilabete. 943 800439.

➡ Auto-karabana saltzen da, 7 pertsonentzako. 18 urte ditu eta 500.000 pezetagatik saltzen da. Bulego orduetan deitu. 943882695.

Bestelakoak

salgai

➡ Kiwi biologikoak salgai, baserriatik bertatik salduak. 943161945.

➡ Su egurra, txikitua eta iharra, salgai. 943883410.

➡ Mitsubishi Monteroren lantak salgai. Aluminiozkoak eta 15". Oso gutxi erabiliak. Prezio interesgarria. 639644314.

➡ 'Nanga Parbat (8.125 m.) saiakera baten istorioa' diapositiba emanaldia interesatzen bazaizu, 943655684 telefonora dei ezazu.

➡ Ordenagailu pantaila salgai. 14"-koa. 630476054. Txema.

erosi

➡ Bigarren eskuko motikultorea erosiko nuke. 943883410.

➡ Apalak behar ditut, 610 x 215 milimetrokoa, burdinezko bari-lazkoa. 630476054. Txema.

Animaliak

salgai

➡ Bost urteko setter txakurra saltzen da. Oilagorretan ondo da-kiena. Salneurri ekonomikoa. 943027139.

➡ Bi urteko pastor aleman txakurra salgai. 943161945.

Lana

eskaerak

➡ Zaldibian asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Ahal dela esperientziaduna. 943880044.

➡ Pertsona bat behar da Mutiloan adineko gizonezko bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 649167831.

➡ Gabirian neska edo emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943889893.

➡ Emakume bat behar da Gaintzan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, arratsaldetan. 94388854 - 943889307.

➡ Neska bat behar da tabernan asteburuan lan egiteko. 17:00etatik 19:00etara deitu. 639625077.



Langai
Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

6 PEOI

Tolosan. Erref. 46689/3

ESKENATOKI, KARPA.. MUNTATZAILEA

Hernanin. Erref. 46752/2

ATS edo MEDIKUNTZAN LIZENTZIATUA

(beharrezkoa gutxienez %33ko minusbalia izatea)

Donostian. Erref. 45686/7

KAMIOI KONPONTZAILEA

Donostian. Erref. 45967/3

ADMINISTRARIA

Donostian. Erref. 46257/3

EUSKARA TEKNIKARIA

Enkarterrietan. Erref. 46300/1

KOMERTZIALA

Donostian. Erref. 46394/1

ILEAPINTZAILEA

Donostian. Erref. 46540/2

ESPORTAZIO KOMERTZIALA

Donostian. Erref. 46553/3

INJINERU AGRONOMOA

Donostian. Erref. 46555/5

KOMERTZIALA

Donostian. Erref. 46765/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

eskaintzak

➡ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko, arratsaldeko 5ak arte. 943887337 (12:30etik 15:00era deitu)

➡ Mutila eskaintzen da edozein peoi lan egiteko, 14:30etik 18:30era. 627369821.

➡ Mutil bat eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko, kontratuarekin. 943 734001. 21:00etatik aurrera deitu.

Eleuteria Sukia- Patxiko Irastorza 70 urte ezkontuta

"Goizeko zazpiretan ezkondu ginen"



Eleuteria eta
Patxiko ezkondu
ziren egunean.

1 931ko urtarrilaren 10ean ezkondu ziren, 24 urte zituztela. Astebetera ospatu zuten ezkontza bazkaria sendiarteko eta lagunekin, Auntxita-Telei baserrian bertan eman zuten martopila edo eztei bazkarian. Duela 70 urteko ezkontzak nolakoak ziren jakin nahi izan dugu.

Goizeko 6etan etxetik atera ziren 1931ko urtarrilaren 10ean, 7etan baitzuten ezkontzeko ordua. Eleuteriaren ahizpa bat ere ezkondu zen. Inolako lekukoren beharrik gabe, bi bikoteak ezkondu ziren Zaldibiako elizan. Ezkondu eta Donostiara joan ziren eztei bidaian, 3 egunerako. Gurdia zain zuten eliza atarian, karteroarena. Ordiziara eramane eta Donostiara joateko trenan har zezaten. Familiakoren batean etxean egon ziren.

Astebetera egin zuten martopila edo eztei bazkaria. Sendi artekoak eta etxe ingurukoak elkartu eta ezkontza ospatu zuten. Etxera kanpoko sukaldaria ekartzen zen. Ganbaran ospatu zuten, soinu eta dantzaz lagundurik. Ez dira jan zutenaz gogoratzen. "Ardikia izango zen seguruenik. Oilo eta oilaskoren bat agian", esan digute.

Jantzi ilunak

Guztia iluna omen zegoen goiz hartan. Baita andregai eta senargaiaren jantziak ere. Eleuteria soineko beltzez ez-

kondu zen. Patxiko, traje urdin ilunarekin. Ordiziako Gaztañaga jostunak eginda-koak. 25 duro kostatu omen zitzaion.

Argazkian ikus daitekeen ezkontzako argazkia, Donostian atera zuten.

Senargaiak erosten zituen ezkon eraztunak. Patxikok bakarri erosi zuen, Eleuteriarentzat. Berari, lagun batek utzi zion, 'zeremoniarako'.

13 zilar edo txanpon eramane zituzten elizara.

Maitasun istorio luzea

Ez dira ez asko, ezkondu zireneko 70. urteurrena ospatzera heltzen. 24 urterekin ezkondu ziren. Eleuteriak otsailaren 15ean bete zituen 95 urte eta Patxikok martxoaren 12an beteko ditu.

Auzokoak ziren Eleuteria eta Patxiko. Elkarrekin jolasean ibiliak, amurrairetan ere bai. Eskolan batera ibili ziren.

Koskortutakoan zertxobait aldendu egin ziren. Eleuteria neskame joan zen Donostia, Tolosa eta Ordiziara. Patxiko 20 urterekin soldadutzara joan zen Ceutara. 17 hilabete egin zituen. Patxiko Afrika aldetik Ordiziara itzuli zenean, lehenengo nor ikusiko eta betiko Eleuteria. Urtebete egin zuten 'nobietan'.

7 seme-alaba izan zituzten. Guztiak ezkonduak. 12 biloba eta 5 birbiloba dituzte. Guztiek elkarrekin ospatu zuten 70. urteurrena, Auntxieta-Telei baserrian bertan. Urrezko ezteiak ospatu zituztene-tik, bost urtean behin ematen dute bazkaria Eleuteria eta Patxikok.

Etxetik urruti

1906an jaioak, Zaldibiako Arkaka auzoan. Bizitzako lehenengo urteak auzoan eta herrian bertan egin bazituzten ere, 12 bat urtetik aurrera, han eta hemen ibili ziren lanean.

Eleuteria neskame ibili zen. Patxiko berriz, artzain batekin morroi. Patxikok 20 urte zituela soldadutzara joan zen, 17 hilabete egin zituen Ceutan. Ezkondu eta baserriko lanak tartekatuz, CAFen eta Zentralean aritu zen lanean. Orainsu artean, baserriko lanak egiten ere laguntzen zuen. Iaz arte, segan aritzen omen zen. "Oraindik ere egingo nuke", esan digu Patxikok.

Ceuta aldean zer moduz ibili ote zen galdetu diogu Patxikori: "ondo eta gaizki", erantzun digu. Larriune baten berri kontatu digu: "erdi hilean egon nintzen. 41eko kalentura eduki nuen. Eman zidaten injekzioari esker nago bizirik. Bidaien batetik ura edan eta sukarrarekin jarri nintzen. Denbora askoan geldi egondako ura izango zen. Mendian geunden eta mandoaren gaineran jaisti nintzen erietxera".

Euskaldun asko zeuden elkarrekin eta euskaldunak euskaldunekin ibiltzen ziren. Ez zuten gaztelerarik ikasi beharrik izan, euskaraz ondo moldatzen ziren eta.



Segurarrak 1960an

Juan Zabalak utzitako argazkian Segurako eskolameak egeri dira bolalekuko eskolatan. Bertan ageri den D. Eugenio de los Mozos maixuak, egur edo paliza latzak ematen omen zizkieten..

1. Juan mari Arostegi, 2. Luli Telleria, 3. Mutillo, 4. D. Eugenio de los Mozos, 5. Joxe Muñoa, 6. Jexus Intxausti, 7. Julio Olaran, 8. Antonio Makazaga, 9. Martzelino Agirre, 10. Pako Gereñu, 11. Gerardo Aristimuño, 12. J. Mari Manso, 13. Antton Huerta, 14. Vicente Casado, 15. Felix Goiburu, 16. Julian Martin, 17. Txetxu Etxeberría, 18. Humberto Arostegi, 19. Pedro Etxezarreta, 20. Peio Zubeldia, 21. German Imaz, 22. Pedro Manso, 23. Aguilar (?), 24. Leandro Elorza, 25. Ezezaguna, 26. Arnaz, 27. Benito Gerriko, 28. Pako Mujika, 29. Inazio Imaz, 30. Jose Jabier Goiburu, 31. J. Mari Imaz, 32. Joxe M. Goia, 33. Peio Arrieta, 34. Estanis Agirre, 35. Jabier Gorrotxategi, 36. Carmelo Casado (?), 37. Juan A. Gartziandia, 38. Rafa Berasategi, 39. Jesus, 40. Ramon Ormazabal, 41. Velazquez, 42. Rafa, 43. Patxi Imaz, 44. Ramon Agirre, 45. J. Mari Luzuriaga, 46. I. Cid, 47. Inazio Martin.

PALACIO ORIENTAL
JATETXE TXINARRA
KALITATEA eta ZERBITZUA
7 urteko ESPERIENTZIA
Tel.: 943 72 52 43
Labeaga, 33 ZUMARRAGA

ERAMATEKO
JANARIA
ETXERAKO
ZERBITZUA
Gutxieneko
eskaria inguruko
herrietarako
2.500 pta.

RUGAZTIBI
AHOLKULARITZA
Domingo Unanue plaza, 2 behea
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

Otsailetik aurrera
ordutegi berria:
9:00etatik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

AMEBI
Sagardotegia

Sagardoa txotxetik!
Martxoaren 3an afaria
trikitilariak alaiturik
Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

SEGURA IRRATIA

F.M. 89.2
EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN



Teilatuen egiturak
Portxeak
Aleroak
Balkoiak
Eskailerak
eta abar



Zorruak eta egurrezko egiturak
Merkatuko aukera osoa
Egin eta jarri egiten ditugu



Gurutze errepidea

ARRONDO GABIRIA

☎ 943 88 59 50 - 943 88 59 54

**LENTILAK
KANPATZA
BERRIA**



3 opari aukeran

PACK-a:
6 HILABETERAKO
2 LENTE KAXA
+ LIKIDOAK

14.900
PTA.



**85 pta. baino gutxiagogatik
EGUNERO LENTILA BERRIEKIN**

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

BERGARA
ARRASATE
ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE SAGARDOTECIA

Egunero zabalik!

TXOTXERO
TXINPARTAZ GAIN
MARTXOAREN
10ean GAUEZ:
TXALLAPARTARJAK
TXIKITILLARJAK
BERTSOLLARJAK

*Bertako sagarrez
egindako sagardoa*

Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!

Zatoz Urbitarte
sagardotegira!

☎ 943 180 119

Ergoiena auzoa

ATAUN



**URBIAKO
GAZTA**



- BASERRIKO PRODUKTUAK
- KONTSERBAK
- ARDOAK



3 belaunaldi gaztagintzan